# IDATZ & MINTZ
## Literatur atalen sorta

# 57

Aurkibidea: Miren Agur Meabe: DOMEKETAKO SAGARRAK. **3**. Iratxe Ormatza Imatz: EGUNSENTIRAKO. **6**. Luigi Anselmi: POEMAK. **9**. Jabier Kalzakorta: *BASOILARRAREN KHANTOREA*-REN GAINEAN BERRIZ ERE. **11**. Eneko Urizar: HERIOTZAREN ARPEGIAN. **18**. Iñaki Sarriugarte: CARMELO ELORDUY (1901-1989): TXINAKO KULTURA ZAHARRAZ MAITEMINDUTAKO MUNGIARRA. **23**. Xabier Boveda: PABLO NERUDA. **31**. Sebastian Gartzia Trujillo: GABRIEL ARESTI, FEDEGABEKO IDAZLE *ERLIJIOSO*A. **38**.

ARGITARATZAILEA
Labayru Ikastegia
Literatura saila

IDAZKARITZA BATZORDEA
Adolfo Arejita
Asier Astigarraga
Jesus A. Etxezarraga
Jabier Kalzakorta
Miren Agur Meabe
Lourdes Unzueta
Andres Urrutia

ARDURADUNA
Igone Etxebarria



Argitalpen hau Bilbon irarri da 2014ko abenduan, Gestingraf, S.A.L. etxean, eta Ikur Fotokonposaketak taiutu dau Times letra moldeaz. Azaleko irudia Luis Manuel Peña Cerro, gainerakoak «Erté graphics», «Big book of silhouettes» eta «3.800 early advertising cuts» liburuetatik atera izan dira.

**LABAYRU IKASTEGIA**
Aretxabaleta, 1-1ngoa
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa:
labayru@labayru.org
48010 BILBAO

MIREN AGUR MEABE

# Domeketako sagarrak

Sasoi hartan betiko etxean bizi ginen oraindik. Garbi gogoratzen ditut atariko harlauzak, orri biko burdin hesia eta zur landuzko balaustrada zabala. Ez ginen aberatsak; aitita-amumei handiki batzuek alokairuan utzitako pisu zaharkitua zen hura, baina horrexegatik genuen, hain zuzen ere, bainuontzi eta guztiko etxe batean bizitzeko pribilegioa, nahiz eta laster, hirurogeita hamarreko goraldi ekonomikoarekin, familia askok gurea baino bizileku dotoreagoak luzitu ahal izango zituzten.

Amari gustatu egiten zitzaion xehetasun hori aipatzea:

—Txikitan lagunak ekartzen nituen bainuontzia ikustera —esaten zidan, antigoaleko etxearen kategoria nabarmentzeko.

Hala ere, bainuontzia ez genuen apenas erabiltzen. Ni neu latorrizko terraina batean bainatzen ninduten ezkaratzean zapatuoro, sutegiko txapan ura berotuta.

Aita izan zen bainuontzia erabiltzeko ohitura abiatu zuena. Portzelanazko pomoek kirrinka egin zuten, eta kanilak penaz isuri zituen hari oker batzuk, harik eta iturginak beharrezko ukituak egin zizkion arte.

Latorrizko terraina txiki geratu zitzaidanean, neu ere hasi nintzen azuleju nakaratuak eta marrazki geometriko koloretsuak zituen baldosa hidraulikodun bainugelaz gozatzen.

—Bizkor ibili, butanoa arin gastatzen da eta —estutzen ninduen amak.

—Bits asko egiteko moduko xaboia erosi behar duzu, Oesteko pelikuletan lez bainatzeko —ekiten nion.

—Zuk ez daukazu zikinik baina.

Aita itsasoan ibiltzen zen mekaniko, hogeitaka eguneko kanpainetan Gran Sol inguruan. Lehorreratzen zen bakoitzean, amak otordu gogokoena apailatzen zion, eta ileapaindegira joaten zen astegun buruzuria izan arren. Ile mehe-mehea zeukan, sarri garbitu arren beti koipeztua, neuk legez, eta aitak zirikatu egiten zuen ile-lumatxak zirela-eta. Aurrerago konturatu nintzenez, arrazoi hobeak zituen berak aita gaitzesteko, bere izaera latz eta aldaberagatik ezezik, baita orain aipatuko ez ditudan bestelako motibo higieniko batzuengatik ere. Alabaina, bikote barruan nork bere papera jokatzen du, ia ohartu gabe harrotzeraino, eta dudarik ez honetan, nire gurasoek elkar maite zuten.

Zerbait gertatu zen, ordea, aitaren mesfidantza piztu zuena. Gertaera hartan, zoritxarrez, izan nuen zerikusirik, eta halaxe ulertu nuen mugarri ikusezin bat zegoela umeon eta helduen begiradaren artean. Pentsatzekoa da orduan ikasitakoak gerora zuhurrago izateko balioko zidala, baina ez nago seguru,



gaur egun ere diskrezioa ez da-eta nire bertute nagusia.

Domeka eguerdi batean, ama eta biok hondartzatik etxera gindoazela, sagarrak saltzen zituen gizon batekin egin genuen topo.

Amak soineko berde bat zeukan jantzita, oso ondo ematen ziona.

—Andretxua, sagarrik ez duzu behar?

Sagar-saltzaileak begi urdinak zituen eta ilezuria zen. Niri zaharra begitandu zitzaidan.

—Etxera ere eroaten ditut, kaxa osoa enkargatuz gero.

Amak neuri begiratu, eta galdetu zidan:

—Hartuko ditugu aititarentzat? Sagarra ona da diabetikoentzat azukre gutxi daukalako.

Uste dut baietz esan nuela. Neskatxo batek zinez sinesten du bere amak baduela behar besteko sena abian jartzen dituen negozioen arriskua kalkulatzeko.

Halandaze, Simon sagarrak ekartzen hasi zitzaigun domekero. Arratsaldeko laurak aldean jotzen zuen tinbrea, aititak telebista zuri-beltzaren aurrean lo-kuluxka egiten zuen orduan. Amak tresnak harraskan utzi, amantala di-da kendu, korridoreko ispiluan bere buruari begiratu azkarra egin, eta atea irekitzen zuen. Simonek kuarto ilunean uzten zituen sagarrak —despentsa, arropategi eta trastelekutzat erabiltzen genuen gela luzangan—, eta segituan alde egiten zuen, amak billete batekin ordaindu eta gero.

Gurean ez zen falta sagar-konpota, tarta edota marmeladarik. Simonen sagarrak estimatuak genituen, haien azalaren kolorea, haien mamiaren guria.

Halako domeka batean, amak kafea eskaini zion Simoni, eta etxera sartu zuen. Geroxeago, atera lagundu zionean, gizonak esan zion amari:

—Pena da, ba, zu lako andretxu batek senarra itsasoan izatea.

Amak atea itxi zuen, serio, agurtu gabe.

Arratsalde hartan, amak bainuontzia estreinatu zuen. Zinera joana nintzen lagunekin, baina etxera bueltatu nintzen tripako minez, komunean sartu, eta ikusi egin nuen.

Hego-haize hodei gorriztek azala tindatzen zioten leihotik barrura. Sagar mordo bat zeukan uretan, bere inguruan flotean, brontzeko ukabil sorta bat bezain ederrak. Ilea bekokian itsatsita zeukan, lurrunagatik, begiak itxita, eta zerbait esaten ari zen ahapeka, ulertu ez nuena. Zortzi urte dituzunean ezin dituzu berba denak ulertu, zugandik ezin hurbilago entzunda ere.

Kikaren txintxin-hotsa aditu zen sukaldean aitak arasari ostikoaz jo zionean. Nahiago nuke ahaztu aitak edozergatik haserretzeko zeukan erraztasuna. Hala ere, orduko suminaldia ez zen azalkeria batengatik izan.

Itsasotik etorri berria zen, eta sagar erreak goraipatzen ari zen, ahoan urtzeko modukoak zirela eta.

—Sagar apartak benetan.

Orduan nik esan nuen:

—Bai gero, pasa den domekan amatxu sagar artean bainatu zen eta.

Aitari karramarrako beltzak bihurtu zitzaizkion begiak, arasari sekulako ostia jo, eta kalera atera zen euri-zaparradatzan. Gauean, ohean nengoela, giltza sentitu nuen sarrailan eta ama mainaka, barka eske.

Nire komentarioa epaile baten mailukada bezain boteretsua izan zen, baina nago inozentziaz bota nuela, nahi barik hautsiz amarekiko konplizitatea. Ala kanpora egotzi behar ote nuen barruan neukan harra?

Biharamun goizaldean aitak itsasora alde egin zuen, betiko legean. Amak begitarte iluna zuen, baina adiskideturik-edo zeuden, aitak musu arin bat ematen utzi baitzion.

Luze gabe, amak bainuontzia bete zuen ur hotzez, ertzeraino. Ohetik atera, belaunikatzeko agindu, eta ileetatik tira egin zidan, burua ondo murgildu arte. Indarrez sakatu zidan puska eder batean.

2014ko abuztuaren 5a



IRATXE ORMATZA IMATZ

# Egunsentirako

Goizegi da, ez litzateke altzau behar. Aldendu barik dago gaua. Horrexegaitik beragaitik jagi da, bere burua apur bat zigortzeko, Xabierri aurpegiratzeko. Komunean hiru bonbilla; bakarra, beharrean. Begi inguru iluna, eta apur bat handitua; atzean niniak, txiki-txiki, ezkerrekoak, tristezia erakusgai; eskumakoak, amorrua. Labadorea beteten dauala, Xabierren galtzetin baltzak be sartu dauz, lexibagaz apur bat zuritu eta ha ernegetako.

Badauka astirik egonean egoteko; sofan umeek itxitako gauzak jaso beharko leukez, ostera. Kafea egiten joan da.

Aspaldion goiztar dabil, astegunetan zein astegoienetan. Umeen edadeagaitik esango leuke hiru urte dirala. Orratzak, estomagoan. Ogia kafesnean, orratzen puntak leuntzeko asmotan. Isilik dago etxea. Ez dau irratia biztu.

Eguena, laneguna. Zurrunbiloa altzau da etxean, beharrerako, eskolarako gertu egoteko. Isiltasuna, beharrerako bidean oinez eta autobusean. Lantokian, berbaroa, goibeltsu. Enpleo-erregulazio espedientea bihar hasteko da; lankide guztiak batera egongo diran azken eguna daukie gaur. Su artifizialik ez, asti gehiago izango dabelako, kirola edo dana dalakoa egiteko. Giroak geroa lohitzen dau, hautsa altzau eta begi-barruan min egiten. Orain bi hilebete hasi ziran krisiaren hotsak kirriak egiten enpresa-batzordean. Zortzi aste baino ez dira behar izan, noizean behingo barreak isiltzeko. Latza da. Beharlekuak arnasa emoten eutsan egunerokoari eusteko, handik kanpokoari. Behargin batzuek alderdi barregarriari begiratzeko ohitureak lagundu egiten eban.

Egun gitxiago lanera, lanerako erropa gitxiago behar. Ez dau erroparik edo oinetakorik erosiko. Hamabost urte gehiago hipotekea ordaintzeko. Eztarri inguruko sokea, apur bat estuago. Xabierren lantegian be ez dabilz lar ondo. Lehortu egin jako samea. Are gehiago urritu beharko dabez etxetik kanpoko gastuak. Aldendu beharko dira Xabierri eta Emilleri arnasa emoten deutsen tabernako eta inguruko lagunarte girotik Unibersidadeak ez dau pobreziaren atea ixten. Ezta be maitetasunak, zoriontasun-ezaren ateari eusten.

Hilebete, astean beharrera hiru egun joan behar danetik; pentsau baino eroangarriagoa izan da. Beharlekuko orduak etxean bete dauz: garbiketa sakona egin dau sutean, komunean eta salan. Beharrizana. Bere buruagaz lotsatuta, hainbeste hautsa, zaborrerako makina bat paper eta beste erretirau dauala-eta. Urtebetean asko pilotu da, Maria etorten jaken etxea egiten; Xabierren lantegian lan-erregulazioko espedientea martxan jarri ebela-eta, Mariari agur esan eutsien. Eginean-eginean Emi-

llek hartu dau etxeko zereginen ardurea. Maria zan euren artean ez haserretzako bermea. Joan zan, eta Emille jarri zan berme. Emillek egin, erabagi, inori itxaron barik, inork txarto egindakoa kritikau barik. Lurrazala garbi dauka; lur azpiko ur ugerrak, baina, gero eta ugariagoak dira. Iturri zabaldu barritik ur franko zelan, halan urteten deutso bor-bor barrukoak. Logelak bakarrik faltetan jakoz.

Kale-argiek makal egiten deutsie kontra gauari. Laneko erropea jantzita kaleko etxeei begira jesarri da. Zurrungak logelatik. Oraingo minutuak orduak egin arte luzatuko leukez: etxekoak lo, enbarazu egin barik. Emille, besterik ez. Bakartasun mugatua. Egunsentia, eguna hasteko zorian, ama, emazte izateko hasteko zorian. Beharra, enpresakoa eta etxekoa, minutuen ostean ostenduta. Indar egiten dau atzean eusteko. Mina egin deutso azkenean bere buruari eustearen eusteaz. Saldoka datoz erantzukizunak, bidertuta; buruko txoko ia guztiak kutsatu arte. Jesarrita segiduten dau. Derrigortu egiten dau bere burua: jesarri, egonarri, apur batean behinik behin. Astean, behintzat birritan, jesarri eta euriari, lainoari, gauari begiratzen deutso, bake eske; batzuetan jakinean ez badago be.

Umeak eskolan itxita, errekadutan dabilela Zuriñe topau dau. Arrapaladan ekin deutsie bakotxaren kontakizunari, ia-ia besteari entzun barik. Euri txiztilak sarri hasi diranean, kafesne beroagaz arnasa eta berbetea mantsotu dabez. Zuriñe Lanbiden sinatzetik dator. Enpleo-erregulazioaren ostean: kalera. Emilleri estomagoa zulotu deutsie huntz handi bik, uretan jarri jakoz begiak. Halanda be, bizkortu egin da Zuriñegaz. Hitzordua ipini dabe, astero-astero alkar ikusteko, txandaka bakotxaren etxean. Dirua aurreztu behar da.

Laztan bat pijamearen ganean, urrunetik: *Emille, Emille*. Nekatuta dago. Xabier ete da. Basuan dabil amesetan, gauaz etxera ezin heldu. *Emille, Emille, zazpirak dira!* Sofan lokartu da, jantzi barik, armozua egin barik. Dantzaldia, estomagoko orratzek be erritmoagaz bat, konpasa galdu barik. Eskilaretatik behera umeakaz doala ohartu da ez deutsala aurpegira ia begiratu be egin Xabierri, ezin esan begizulorik daukan. Barrua estutu jako, gero eta urrunago, gero eta arrotzago ez ete dauan Xabier ikusten. Arnasak min egin deutso, nonon. Seme-alabak barrez zein errietan doaz. Emilleren eta Xabierren arteko eremua txikitu egin dabe, sartu-irtenak ugari egiten dabez, hesi barik dago-eta. Logela, euren eremu bakarra, etxun eta bakotxaren bakartasunagaz egoteko lekua da aspaldion, loak hartu aurretik. Erosoa jake zelanbait bakartasun hori. Besteagana jo ezkero, albo-alboan egonda be, urrutira joatea da. Esparru erosotik urten eta galdera-erantzunen lurralde labankorrera sartzea litzateke, jausi eta lesinoa egiteko aproposa.

Erropea garbitzeko hamaika produkturen aurrean bat aukeratu ezinik, txantxetako doinu ezaguna

entzun dau atzean. Eneko da, aurreko beharlekuko lankidea. Hamar bat urte igaro dira, berak be seme-alabak daukazala-eta. Alkarregaz urten dabe erosketa-zerrenda amaitu barik. Gurasoen barriketan ohiturazkoa: seme-alabak, nagusi. Enekogaz bikotekidearen gaia atera da, ostera, tabernan zerbezea eskatu orduko. Andrearen ikuspegia gura dau, Emillek zer pentsetan dauan, ea bere andrea hobeto ulertzeko balio deutsan. Bikotekideagaz ulertzeko arazoak, isiluneen gogorra, berben mina izan dabe ahotan. Halan edo holan, amorruaren hainbat eskina baketzeko balio izan deutso Emilleri. Gizonaren mina eta ezintasuna bere andrearen ganera berba egitean etxerako bidean ibili dauz buruan. Xabierrek be bereak izango dauz; Emillek ezingo leukez zehaztu, ordea. Emille bera egon da urrunduta; Xabier bera be urrunduta egon leiteke, nogandik eta beragandik. Ezuste ederra.

Neguko asteek halako ohiturea hartu dabe: astelehen, martitzen eta eguenetan beharrera. Eta beste egunak, beharrean handik kanpo baino hobeto dagoala pentsetako egunak. Dana dala, Zuriñegaz astean-astean ordubete gitxienez egoteak osterantzean inguruan izango leuken giroa eztitu deutso, baita barrukoa be. Errentan bizi da, bi logelako etxe batean, lanik topetan ez dauala-eta, neska bat hartu dau etxean. Mutilegaz itxi ebanetik, orain hiru urte, bakarrik bizi izan da eta deseroso egin jako nonor etxean hartzea. Beharra galtzearen albo-ondorioa; dana dala, lanik ez topeteagaz alderatuta, kalte txikikoa dala deritxo.

Zuriñegaz egiten dauzan barriketek argi egin deutse: burrukea latza norberaren izaeraren, egin eta izan nahiko leuken eta errealidadearen artean. Egunerokoak gogor ekiten deutso, askotan norberaren kontra, egunero aldatuz doa (egunero zeregin desbardinak, moltso berekoak badira be). Norberak behar nagusi bat dauka, kanpotik zein barrutik ezarrita, egokitzea, ertzak, nahiak, gogoa apaltzea. Eta, aldi berean, ordea, goizak zein arratsaldeak ekarritako harriak kendu, jaurti, edo ezereztu, ahal bada. Urteak joan, urteak etorri, aldatzen ez dan bakarra, burruka horixe da.

Eguna egunaren atzetik, gaua gauaren atzetik. Iretargi betea, ilgora, ilbehera, lainoen atzean. Baten bakarrik ikusi dau iretargia egunsentian. Xabier zurrungaka. Gitxiago eztabaidatzen dabe, eta, ondorioak, eztabaidarenak, ez dira horren mingarriak. Emillek berak negu gorriko erropak kendu ahala, kendu dauz amorruaren hainbat azal. Danak ez. Eneko askotan izan dau gomutan. Emillek badaki bera hobeto, nasaiago, dagoalako, Xabier eta bera be hobeto dagozana. Ahaztu egiten jako. Xabier ezagutu eban ezkero, halan izan da beti.

Uda da, erregulazio-espedientea amaitzear dago. Urrunean dauka hasi baino lehenagoko sasoia. Haize-erauntsi batek gauzen lekua aldatu izan baleu lez, Emille barne. Bere lekua aldatu dauen ezkero ala gauzen lekua aldatu dan ezkero, ingurua eraldatuta igarten dau. Indarra, bai, indarra emon deutso haize-erauntsiak, edo haize-erauntsiak aldatutako lekuak emon deutso indarra. Ez dauka lebarik nondik datorren indarra, ezpada ze nora doan indarragaz. Atalondoko espiluan Emilleren irribarre sendoa, etxera sartu da. Burrukea ez da izango horren latza.

LUIGI ANSELMI

# Poemak

### *MITOLOGIA APUR BAT*

MEDUSA ikaragarriaren
odol usteletik
Pegaso
zaldi zuri hegalduna bezala,
sortzen da maiz
sufrikarioetarik
edertasuna…

### *HOSTOAK JAUSTEN DIRENEAN*

Ez zen Zeus
maitalerik leialena izan,
eta ez zion inoiz
emazte edo jainkosa
bati bere amodioa
luzaz eskaini …
Baina urtero,
udazken atarian,
Olinpo menditik
jaisten da
urrezko euriaren
irudia hartuta,
Danae-ren maitasuna
berriro eskuratu
nahi balu bezala…

## *BAKOREN DEIA*

Mikaren luma ederrek
piano gozakaiztu baten teklak
dirudite
mahats-hostoen artean
pausatzen denean…

Utzi paperak oro
alde batera
eta korri ostatura!
Jainkoek ez dute maite
inoren zain
luzaz egotea…

OHARRA:
Mika eta Mahatsondoa dira, besteak beste, Bako jainkoari kontsakratutako txori-landareak.

## *AFRODITAREN TXORIAK*

Uso eta txolarreak
-Afroditaren txoriak-
harat honat dabiltza
hiri arre honetan,
beste edozein errumes
bezain ezdeus,
bezain pobre eta zarpail.

Urrezko orga
garabiak eraman bide zuen
behar ez den lekuan
aparkatzeagatik
eta jainkosa bera
preso altxatu zuten
udaltzainek
kalean
erabat biluzik
zebilelako…

JABIER KALZAKORTA

# *Basoilarraren khantorea*ren gainean berriz ere

### *1. Sarrera*

Gure aldizkari honetako 54. zenbakian "Basoilarraren khantorea" izenburupeko artikulua idatzi genuen. Artikulu horren segida dugu oraingo gure lantto hau. Basoilarra deritzagun hegaztia era bateko eta besteko kantuetan agertzen da. Bi kantu motatan behintzat aurkitu ohi dugu "Gizon gaztiak ezkontzeko" eta "Oilanda gazte moko fier bat" deiturikoetan. Basoilarra hegazti eder eta misteriotsutzat daukagu. Baso handietan agertu ohi da bere kukurusta eta lumaia ederrekin. Euskal amodiozko kantuetan ere agerrera eder eta misteriotsua du, gure ustez. Ehiztari baten moduan hegazti honen bila ibili gara gure folkloreko aleetan ehizean. Ehiztariarentzat ez dago inoiz nahiko ehizarik. Ehizean edo ezean ibili delako ustea du betiere. Aurkitu dugun eredu berri ezezagun bakoitzak poz handia eman digu. Eredu horiek transkribatzea eta iruzkintzea da gure lan honetako asmo nagusia.

### *2. Iratiko sorhoa eta iratiko basoa*

Hegoaldean "Basoilarrak kantatzen dizu" kantua Benito Lertxundiren ahotik ezaguna dugu batez ere. Itxura guztiak direnez, Benito Lertxundik Azkueren kantutegiko 18 zenbakiko kantua du iturri. Kantu horren izenburua *Basoilarrak* dugu eta Albert Constantin (1873-1957) medikuari Atharratzen bildua da. Hona, kantutegian datorren bezalaxe:

> Basoilarak kantatzen düzü Iratiko basoan;
> ihurk elezakezu pentsa nik zer düdan gogoan;
> gayak oro igaraiten tüt maitearen ondoan.

Kantu honen hitzek misterio bat baino gehiago gordetzen dituzte. Zuberoako kantu honetan izenburuan, *Basoilaŕak* erre gangardunarekin dator eta ondoko testuan *basoilarak*. Bigarrenik, *k(h)antatzen düzü* edo *k(h)antatzen dizü* ote da? Ez dago dudarik aditz horren subjektua *basoilarrak* dela. "Basoilarrak kantatzen du" baldin bada, hika *kantatzen dik/din* behar luke eta zuka *kantatzen dizü*. Ezagutzen ditugun eredu ia guztietan *basoilarrak kantatzen dizü* dugu. Diogunaren salbuespen bakarra gure lan honetan bertan emango dugu Eskiulako eredua aztertzean. *Basoilarrak kantatzen dizü* doinu eredua izan da, bestalde. Elissanburuk "Arbasoak" kantua eredu zahar hau oinarri harturik sortu zuen. Era berean, *elezakezu pentsa* hori *elezakezü pen(t)sa* behar luke, gure ustez.

Misteriorik handiena, ordea, *sorhoan* edo *basoan* ote da? Misterio hau zulatzeko edo argitzeko orduan jatorrizko eskuidatzira eta garbirako bigarren bersiora jo dugu. Azkue Biblioteka eta Artxiboko ABA-RMA-OO1-0002-001-695 kantu zenba-

kian *Basoilarrak* kantua aurkitu dugu. Honelaxe dator:

> Basoilarrak kantatzen düzü Iratiko sorhoan;
> ihurk elezakezü pensa nik zer düdan gogoan;
> gaiak oro igaraiten tüt maitearen ondoan.

Lehen transkripzioan halaxe bildu zuen Azkuek. Kantuaren 695 zenbakiaren gainean Suberoa hitza jartzen du. Garbirako bigarren transkripzioan ere, ia beti argitaratzen den bezala agertzen den ereduan ere (ABA-RMA -005-0014-002-353 kantu zenbakia), berdin-berdin ematen du. Ez dago dudarik, beraz, *Iratiko sorhoan* bildu zuela Azkuek ezagutzen ditugun ahozko transkripzio guztietan bezalaxe. Guk, gaur egun, *Iratiko basoa* bezala ezagutzen duguna lehenago ere era horretara ezaguna izango zen. Jose Manuel Arrizabaloren *Baso-mutillak* liburuan (Auspoa 134 zenbakia) *Irati mendia(k)* eta *Iratiko mendiak*[1] dio behin eta berriz. Hango basoetan lan egindako baso-mutil hark ez dio behin ere *Iratiko basoa*. J. M. Arrizabalok bere lanean Iratiko piztien berri eman ondoren, honelaxe hitz egiten du hegaztiez Irati atalean:

> Gero egaztiak ere badira; butreak eta arranoak, zapelaitzak eta gabirariak, okillak eta eskillasoak; zozoak eta birigarroak, txantxangorriak eta txepetxak.
>
> Kukurik ez, paraje altu eta otza zalako, ez omen zan joaten.
>
> An, Iratin, baziran okil beltzak, emen Gipuzkoan ez diran bezalakoak; belearen tamaiñakoak, moko luze-luzearekin.
>
> Ollagorrak ere, an udaran asko izaten dira, ta umeak ere an ateratzen dituzte, lur gorrian. Illuntzetan atera ta mendi-kaxkoetan ibiltzen dira ollagor oiek; eta egunez erretiratu kabi aldera edo umeak dauzkaten toki aldera.
>
> Beste txori txiki batzuek ere bai, emengoen antzekoak; kaskabeltzak eta olakoak.
>
> Ontza, berriz, pestea zegoan an, ta lo asko galerazten ziguten. Udara-azken aldera, txabola ondoraino etorri-ta, ujuka ta karraxika etziran ixiltzen. Uuuu… Uuuu… (84 or.)

Iratiko mendietako pasarte honetan hegazti asko aipatzen ditu, gure basoilarraren aipamenik, berriz, ez du egiten. Iratiko sorhoa eta basoa aipatu ditugu puntu honetan eta J. M. Arrizabaloren testigantza



ederra ekarri dugu. Zein ote da, ordea, Iratiko mendia aipatzen duen lehen euskal testigantza? Uste dugu galdera honen erantzuna Fernando Maiora Mendiaren *Reino de Navarra, euskera, injurias, koplas, frases* liburuan datorrela. Liburu honetan Ochagavía (Salazar) izenburupean, 102-103 or., dator erantzuna. Hamaseigarren mende bukaerako auzi baten transkripzioan –1598 urtekoan hain zuzen– bi pasarte hauek datoz:

> (…) y el dicho Ycalcu respondio, que antes que el alcalde de Ochagabia, lo havia detenido el alcalde de Sanguesa y que dixo mas en bascuençe el dicho Ycalçu (*Yratico oyanean nic arrbalinbaneça eta bioc bayçi espaguina licençiatu Palacios eta ny nic eracuchico nuen nondic guisen ygusquia eta nic ylarroz aldi bat emanen nioque bellaco zarrari*) y despues desto dixo de cómo tambien a el le dio la dicha liçençia el dicho Señor Virrey, antes que al dicho liçençiado Palaçios como dicho es dixo Ycalçu por el dicho liçençiado, jamas de todo lo suso dicho en bascuençe diziendo *yratico eremuan arrbadeçat nic eracuchico diot ygusquiaren bearria,* que este testigo no save en romançe (…)

Testu honetan *Iratiko oihanean* (Yratico oyanean) eta *Iratiko eremuan* (yratico eremuan) agertzen zaizkigu. XVI. mende bukaerako testigantza hau baino zaharragorik ez dugu ezagutzen.

### *3. Ligiko bordda kaiereko eredua*

Gure kantak "Basoilarraren khantorea" du izendapen bat. Azkuek "Basoilarra" deitzen zion, modu laburtuan. Ligiko Bordda kaierean "Bazo oillarak khantatzen dizu" izenburupean gure kanta aurkitzen dugu. Kantu hau modu batera baino gehiagotara deitua izango da. Guk kantaren lehen transkripzioa ahalik eta modurik fidelenean egingo dugu. Hona hemen, beraz, Ligiko Bordda kaierako eredua:

1

Bazo, oillarak khantatzen dizu Iratyko zohoti
Nehor[k] éliokezu phentza nik zer dudan gogotik
Gaiak oro iragaiten tut nezkatilen ondotik

2

Mouthil gaztiak behar liketzu ezcou[n]tzeko laou gaiza
Emastegueia propi ta ahal bada birjina
Dirou franko zakolan eta dezpendiouen ez lotza

3

Laou etaric hirour badut bainan laou gerena dut falta
Emaztegeia propi ta bihotzez alagera
Dezpendiouen ez lotza bainan diroua dizu[t] falta

Lehen baldintza andregaia garbia izatea da. Gure eredu honetako *propi* hitzak "garbia" esan nahi du. Laugarrena falta duela dioenean "dirua" falta duela adierazten du. Dirurik ezean ez baitago gastatzeko beldurrik. Ligiko kanta hau gaurko grafiara honelaxe ekarriko genuke:

1

Basoillar[r]ak khantatzen dizü Iratiko so[r]hoti[k];
nehor[k] ez liokezü phentsa nik zer düdan gogotik,
gaiak oro iragaiten tüt neskatil[l]en ondotik.

2

Muthil gaztiak behar liketzü ezku[n]tzeko lau gaiza:
emaztegeia propi ta ahal bada birjina,
diru franko sakolan eta despendiuen ez lotsa.

3

Lauetarik hirur badüt bainan lauger[r]ena düt falta,
emaztegeia propi ta bihotzez alagera,
despendiuen ez lotsa bainan dirua dizü[t] falta.

Honelaxe ulertuko genuke jatorrizko lehen transkripzioa. Duda bat baino gehiago izan ditugu


36

"Baja oillarak kkantetzendiz"

1er

Baja oillarak kkantatzen diza Iratyko sohoti
Etchor éhokezu phentza nik zer dudan gogotik
Gaiak oro igaraiten tut nezkatilen ondotik.

2en

Mondhil gaztiak behar liketzu egontzeko laur gauza
Anastegueia propi eta ahal bada bizima
Diroa franko zakolan eta dezpendionez lotza

3

Laur etanie hiruz badut bainan laur geneadut falta
Anastegeia propi eta bihotzez alagena
Dezpendituen ez lotza bainan diroua dizu falta.

zenbait hitzetan. Zuberoako euskaran *diharü* hitza *diru* hitzaren lekuan espero genuen.

### *4. Basoilarra kantaren Eskiulako eredua*

Baionako Euskal Museoan gordetzen zen Louis Dassanceren hondo edo funtsean, laugarren kutxan, orrialde solte bat dator. Orrialde horretan *Narbéburu Esquioule* erreferentzia dator. Kantuaren izenburuak *Gison gastiac* jartzen du: Hona jatorrizkoan datorren bezalaxe:

I

Gison gastiac eskonseco behar ditou lau gauza
Andre on edera echian éta alegera bihotza
Diroua franko sakolan eta bizisiaren es lotza

II

Gison gastiac behar luké eche orotan amore
Etché orotan esbada heri bakotchian bat bederen
Erausi gaichtoa eldu denian uken dezan aterbé

Bas oillarac cantazen du iratico sohouan
Ezin dezateréké pentza ser diroen gogouan
Gaiac eta egunac pasa nizazké neskatilen ondouan

Jatorrizko eskuidatzi hau Dassanceren beraren kaierean, 62 or., erreferentzia hauek dakartza: Narbeburu Esquiule, 1954 Licq. Baliteke erreferentzia hauek 1954 urteko Ligiko kantu txapelketakoak izatea. Eskuidatziaren egilea *Narbeburu Esquiule* denez gero, Eskiulako kantatzat dugu. Hona Dassanceren eskutikako eredua:

I

Gison gastiac eskonseco behar ditu lau gauza
Andre on edera etchean eta alegera bihotza
Diroua franko sakolan eta bizisiaren es lotza

II

Gison gastiàc behar luke etche orotan amore
Etche orotan esbada ere heri bakotchean bat bedere
Erounsi gaichtoa eldu denian uken dezan atherbe.

III

Basoilarrac cantatzen du Iratico sohouan
Eziñ dezatereke pentsa ser diroen gogouan
Gaiak eta egunac pasa nizazke neskatilen ondouan

Dassanceren transkripzioan, hirugarren ahapaldian, *cantatzen dizu* jartzen du, eta *dizu* ezabatuta gero, ondoan *du*. Argi dago, beraz, kontua. Ohitua zegoen beti k(h)antatzen dizü entzutera eta eredu honetan ere halaxe egin zuen.

Gaur eguneko ortografiara aldatzeko orduan bi ereduak duda bat baino gehiago egingo genuke. Hona hemen gure saioa:

I

Gizon gaztiak ezkontzeko behar ditü lau gauza:
andre on eder[r]a etxean eta alegera bihotza,
dirua franko sakolan eta bizitziaren ez lotsa.

II

Gizon gaztiak behar lüke etxe orotan amore,
etxe orotan ez bada ere her[r]i bakotxean bat bedere,
erauntsi gaixtoa [h]eldu denian ük[h]en dezan atherbe.

III

Basoilarrak kantatzen dü Iratiko sohuan;
eziñ dezatereke pentsa ser diroen goguan,
gaiak eta egünak pasa nizazke neskatilen onduan.

Kantu honetako *bizitziaren ez lotsa* esaldiak "bizitzearen beldurrik ez izatea" adierazi nahi du. Gure kantuko bigarren ahapaldia bortiztasun handikoa da. *Erauntsi gaixtoa heldu denian ükhen dezan atherbe* irudi grafiko eta indartsua ez dugu bestetan aurkitu.

### *5. Dassanceren paperetako eredua egokituta*

Aurreko puntuan kanta beraren bi eredu eman ditugu. Bi ereduen lehen iturria dugunez gero, badakigu zeinetan oinarritu zen Dassance. *Kantu kanta khantore* liburuan, 78 or., agertzen dena ahapaldi bakarrekoa dugu eta Azkueren eskuidatzian agertzen den bera da. Dassanceren paperetan hiru ahapaldiko eredu bat aurkitu dugu eta badirudi Narbéburu Esquiuleren ereduan oinarritutako eredu asmatu edo egokitu bat dela. Hona hemen:

1

Gizon gaztiak ezkontzeko behar ditu lau gauza,
andre bat etxian, alegera bihotza,
diru franko sakolan eta bizitziaren ez lotsa.

2

Gizon gaztiak behar luke etx'orotan amore,
etx'orotan ezpadü ere, herri bakotx bat bedere
erauntsi gaixtua balin bada ükhen dezan atherbe.

3

Basoilarrak kantatzen dizü Iratiko sorhuan
ihurk ez lezakezu phentsa nik zer düdan goguan,
gaiak oro iragaiten tüt maitearen onduan.

Eredu hau Narbébururen ereduaren egokitzapen bat dela dirudi. Lehen bi ahapaldiak eredu hori oinarri harturik apurren bat egokituak daudela dirudi.



Nardebeure Eiquiule 1954 Lucq.

I

Gison ~~bat~~ gastiae ezkonteco behar-ditu lau gauza
Andre on edera etchean eta alegera bihotza
Dirua franko sakolan eta bizisiaren ez lotza

II

Gison gastiae behar-luke etchecrotan amore
Etchecrotan estada ere heri bakotchean bat bedue
Erounsi gaichtoa eldu denian uken dezen attube.

III

Basoilanae cantatzen ~~dizu~~ du hatico lohouan
Ezin dezatereke pensa ser diroen ~~t~~ gofouan
Gaiak ~~eta~~ egunae pasa nizayke nastatilen endouan.

### *6. "Lau gauzak" edo "gizon gaztiak"*

"Gizon gaztiak" edo "Basoilarrak kantatzen dizü" kantaren eredu zenbait eman ditugu. Ahapaldi bera kantaren lehen buruan edo azken buruan joan daiteke. Zenbait kasutan "Gizon gaztiak" izeneko kantak ez du basoilarra aipatzen den ahapaldirik.

Gizon gazteak ezkontzeko behar ditik lau gauza
lehen lehenik iduria, alegera bihotza,
dirua frango sakelan eta bizitzeaz ez lotsa.

Horietarik hiru baditut, laugarrena dut falta.
Bai, iduria badut eta alegera bihotza
dirurik ez dut bainan ordainez bizitzeaz ez lotsa

Aldiz baditu hiru tatxa batto bainuke aski,
arno-edale, jokolari, lanian ez ari nahi,
horien gatik, guzien gatik andrek maite naute ni.

Eredu honetako azken ahapaldia ez da basoilarrarena, guztiz berria den beste bat baino.

### *7. "Oilanda gazte" eta "basoilarra" kantak*

"Oilanda gazte" kantua ezaguna dugu bestaldeko tradizioan. J.D.J. Sallaberry-ren kantutegian ahapaldi bakarra dator, kontu ezaguna denez. Ahapaldi bakarraren ondoren puntu batzuk datoz. Puntu horiek kantaren jarraipena adierazten zuten. Pie-

rre Duny-Petrék "Recherches sur les couplets perdus des vieilles chansons basques" *Gure Herria,* 1962 aldizkarian kantaren ahapaldi gehiago eman zituen. Louis Dassancek kanta berari beste artikulu bat eskaini zion aldizkari berean "A propos de la chanson Oilanda gazte", *Gure Herria* 1965 ekaina, 33-35or. Guk ere beste noizbait kantu honen gainean ereduak finkatu beharko ditugu. Oraingoz esan dezagun ditugun ereduen azken ahapaldi bezala hauxe datorrela eredu batean baino gehiagotan:

Basoilarrak kantatzen du Iratiko sorhotik,
bardarratsian beira nindagon maiteñuaren leyotik
jende onak ez estona ni hor ikustia gatik.

Ahapaldi honek *basoilarrak kantatzen du Iratiko sorhotik* esaldi ezaguna badu ere beste segida bat aurkitzen dugu. Ahapaldi hau "Oilanda gazte" kantaren ereduaren bi aldaeratan behintzat aurkitu dugu azken edo bukaera ahapaldi bezala.

### *8. Ondorio bezala*

Uste dugu "Basoilarrak kantatzen dizü" euskal kantua ez dugula ondo ezagutzen. Azkueren eredu egiazkoa aztertu ondoren, eredu honek kantutegiko beste kantu batzuekin dituen bateratasunak aztertu nahi izan ditugu lan honetan. Konparantza lan hori egiteko aldaera ezezagun batzuk ekarri ditugu geure artikulura. Uste dugu argitasun berriak eman baditugu ere, kanta honek baduela oraindik zer aztertu.

**OHARRAK**

[1] Hona zenbait adibide: *Irati mendian, pagoa ta abetoa, bi arbola klase oiek bakarrik ziran*. (80) Iratiko mendiak puntu asko ditu beren izenakin: *Koxta izenekoa bada; Errekaidor ere bai; Errekabeltxa ta Errekatxuria ere bai. Badira geiago ere, baiña etzaizkit gogoratzen orain*. (81)

ENEKO URIZAR

# Heriotzaren arpegian

*You do death alone,*
*but I coulda helped her*
*with the dyin' part.*
Jimmy Markum

***Barnekaldea. Igerilekua. Arratsaldea.***

AITA bat (33) eta NESKA gazte bat, bere alaba, (4) uretan daude. Biek txano barregarri horietakoak daramatzate, bata laranja eta bestea beltza. Umeak erdi-erdian bihotz arrosa handi bat duen marradun bainujantzia darama. Igeri egiten ikasten dabil.

Gaur, igeri egiten zebilela, burua uretan sartu duen lehen eguna izan da. Hori dela eta horizontalean egotean, etzanda, igeriketa errazagoa egiten zaio. Baina, beldurra dela eta, arineketan AITArengana joan da.

**AITA (HARRO)**

Oso ondo pitxin!
Bikain.

NESKA AITAren besoetara iritsi da. Begiak urez beteta ditu, ur azpian ireki dituelako. Igerileku modernoek ez daukate lehengoek zeukaten bezainbeste kloro. Orain ozonoa (O3) baino ez dutela diote.

**NESKA (OSO POZIK)**

I can swim! I can put
my head under the water.
How did I do aita?

**AITA**

Primeran maitxia!

***Barnekaldea. Igerilekuko dutxa. Arratsaldea.***

Dutxa batean sartuta daude, biak biluzik, lurrina eta xaboia toki guztietatik eta NESKAk ile guztia aparrez beteta dauka. AITA NESKAren burua garbitzen ari da.

**NESKA (NEGARREZ)**

I am closing my begiak!
Aitaaa! Don't do that!

**AITA**

Naaaia, xaboia kendu
behar duuugu…
itxi begiiiak, meseeedez,
bestela xaboia begietan
sartuko zaizu.

Dutxa gelditu da. AITAk eskuoihal gorri baten barruan sartu du NESKA.

**AITA (NEKATUTA, GOGAITUTA)**

Maitxia, xaboiarekin
kontuz ibili behar duzu.
Zenbatetan esan dizut?
Begiak itxi eta burua
atzera bota.
Horrela ez duzu begietan
xaboirik izango. Ados?

**NESKA**

I know aita.
I will keep it in my head.
Umeak eskuineko eskuko erakuslearekin lokian kolpetxo bi eman ditu.

***Kanpokaldea. 92nd Street, between Madison & park. Arratsaldea.***

Benetan egun beroa da. Biek ilea bustita daukate. Garai victoriarreko etxeen eskailerak espaloiraino iristen dira. NESKAk AITAren eskua heldu du ibiltzen hasi direnean. Semaforoa gorri jarri da eta kalekantoian itxaron behar dute.

**NESKA**

Are we going to
go to the ice-cream
store, aita?

**AITA**

Bai. Zuk zer hartuko duzu?

**NESKA**

Mango. No, no, wait.
Vanilla. Yes, I want Vanilla.

(ETENALDIA).
Aita, can we play
“pertsounak”?

**AITA**

Ados. Ea…
nor da *maman*en *maman*?

**NESKA**

Mmm… Mamyyy!

**AITA**

Bai, oso ondo maitxia.
Eta *maman*en aita?

**NESKA**

Mmm… I dont’k know.

**AITA**

Bai maitxia, badakizu,
pentsatu.

**NESKA (OIHUKA)**

Papy!

**AITA (SEMAFOROARI BEGIRA)**

Ederki!
Eta aitaren *maman*?

**NESKA (HARRO)**

I know it!
A-ma-ma.

**AITA**

Ederki bihotza!

AITAk muxu bat eman dio, astiro, denbora hartuz. Semaforoa berde jarri da. AITAk eskua luzatu eta NESKA, eskuari heldu eta ibiltzen hasi da.

**NESKA**

And your aita? Who is
your aita? Wait!
I know… Aitor!

**AITA (BARREZKA)**

Ez maitxia.
Aitor aitaren anaia da,
aita's brother.
Aitaren aita…
aitxitxe Jon da, zen…
da…
Baina zuk ez duzu
aitxitxe Jon inoiz ikusi.

**NESKA (SERIA)**

Why aita?

**AITA**

Hil zelako. Aitxitxe Jon
hilda dagoelako.

**NESKA (HARRITUTA)**

Is he dead?

**AITA (NESKARI BEGIRA)**

Bai Naia,
hilda dago.

**NESKA**

Did anybody
step on him?

**AITA (BARREZKA)**

Ez maitxia.
Aitxitxe Jon ez zen
inurriak bezala hil.

**NESKA**

And so?
What happened?

**AITA**

Gaixotu zen.

**NESKA**

And the *médicaments*?

**AITA**

Saiatu ginen, pitxin,
baina ez zuten
ezer egin.
Oso gaixorik zegoen…

**NESKA**

And then he died.

**AITA (NESKARI BEGIRA)**

Bai.

**NESKA (AZALPENAK EMANEZ)**

He died,
and he is never
coming back.
He is sleeping,
sleeping forever.

**AITA**

Halaxe da maitxia.
Lo dago.

**NESKA**

Now I know aitxitxe Jon
and I will keep him in my head.

Bero handia dago, baina izozki dendara iritsi dira eta ilea bustita daukate.

IÑAKI SARRIUGARTE IRIGOIEN

# Carmelo Elorduy (1901-1989)
## Txinako kultura zaharraz maitemindutako mungiarra

***Atarikoa***

2014ko irailaren 1ean, 25 urte bete dira Carmelo Elorduy jesuitak agur esan euskunetik. Mungiarra genduan semez, baina jaioterritik kanpo emon ebazan bere bizitzako urterik gehienak, Txinan eta Taiwanen batez be. Ospe handia beragandu eban mundu zabaleko sinologoen[1] artean, eta esan geinke Euskal Herritik kanpo ezagunagoa izan dala gure artean baino. Lerroon helburua, zera baino ez da: urteurren honetan Aita Elorduyren figurea eta haren lan nagusietako bat (*Romancero chino*) apur bat ezagutuarazotea. Heldu bekio, era berean, gure omena bere jaioterritik hain urrun hil jakun euskaldunari.

**Mungiatik Taichung-era**

Carmelo Elorduy Maurica Mungian jaio zan 1901eko urtarrilaren 25ean. Hemeretzi urtegaz Loiolako nobizio-etxera joan zan, eta handik Burgosko Oñako monastegira. Oñan hiru urte emon, eta Txina aldera jo eban. 1926ko irailaren 16an heldu zan Shanghai-ra, eta, segiduan, jesuitek Anhui probintziako Wuhu eskualdean eukien misinora joan jakun. 1927-1929 urteetan bertako abadegaien irakaslea izan zan, eta sakon aztertu eban txinatar hizkuntzea, bai karaktereen sistemea, baita Anhui eskualdeko ahozko txinerea be.

Misino-aldi hori amaiturik, 1929an, Espainiara bueltau zan teologia-ikasketak egiten, baina 1932an, Espainiako Errepublikak Jesusen Lagundia desegiten dauanean, beste jesuita batzukaz batera, Marneffe-ra (Belgika) jo eban, eta urte berean abadetu zan, hogeta hamaika urteko zala. Handik lasterrera, Teologiako ikasketak burutu zituan, eta



Aita Elorduy, Wuhun, beste josulagun batzukaz[2]

frantses hizkuntzan aurrerapauso handiak egin zituan bertako josulagun frankofonoek lagunduta. Baina mungiar gazteak ez eban larregi luzatu Belgikako egotaldi behartu hori, eta, 1934an, Txinara bihurtu zan.

Elorduy, hamalau urtez (1934-1948), misiolari egon zan Wuhuko misinoko hainbat eskualdetan. Garai latza. Izan be, gobernuaren eta komunisten arteko gerra zibila ez ezik, Japoniaren eta Txinaren artekoa be sufridu behar izan zituen misiolari jesuitek. 1949an Carmelo Elorduy Filosofia irakaslea da Anhui probintziako Seminario Nagusian, baina komunistek boterea lortukeran, jesuitek erbestealdirako bide mingotsari heldu behar izan eutsien barriro. Elorduy, 1951n, Macao kolonia portugaldarrera joan zan; eta, hurrengo urtean, Taichung-era (Taiwan).

Taichung urian, jesuitek talde sendo bat osotu eben hiztegi txinatar entziklopediko bat egiteko, eta Elorduy bete-betean sartu zan taldean. Hiztegiaz ganera, bost konpilazino berezi egin ziran latinez, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta hungarieraz. Nazioarteko talde horrek, aditu txinatarrek lagunduta eta gogor lan eginda, hamar urtean amaitu eban behar erraldoia:

> "El Padre Carmelo Elorduy fue el principal lexicógrafo del diccionario chino-español, demostrando diariamente su tesón y su competencia al investigar la compleja plurisemia de los caracteres y fijar el verdadero sentido y traducción de cada expresión china. Los treinta y tres volúmenes en folio de ese gran diccionario chino-español, terminado en 1958 y hasta hoy inédito, contienen un riquísimo tesoro de la lengua china, tanto clásica como moderna"[3].

Jesuita adoretsua baina, gaixotu egin zan, eta, 1959. urtean, Espainiara bihurtu zan barriren barri. Gaztetan ezagututako Oña herrira joaku Elorduy, eta bertan topauko dau bere anaia Eleuterio[4]. Esan behar da, Eleuteriok berak bultzatu ebala Carmelo, Txinako filosofo klasikoen obrak ikertzeko eta arlo horretan sakontzeko. Carmelo Elorduyk 58 urte daukaz, baina adinak kikildu barik, buru-belarri sartu zan Txina zaharreko filosofoen munduan. Oñan bertan hasi zan beharrean, eta zuzen-zuzenean testu klasikoetara jo eban, itzulpenak-eta bigarren maila baten itxita. 1961ean *Tao Te Ching* liburuaren itzulpena argitaratu eban, taoismo filosofikoa sakon aztertuta[5]. Europako sinologoen artean harrera ezin hobea euki eban Elorduyren lanak; izan be, ordura arte ulergatxak edota ulertezinak ziran pasarte asko behin betiko argitu zituan mungiarrak.

Oñan bost urte emonik, 1962an, Taichung-era bihurtu zan Elorduy, eta hortik aurrera Txinako klasikoen azterketeari opetsi eutsazan heriotzara arteko bere ahaleginik gehienak. Ahalegin etenbako horrek zazpi obra nagusi ekarri eutsazan sinologiari; zazpi zutabe sendo Txinako kultura zaharra hobeto ezagutu ahal izateko gure mendebalde honetan.

1967. urtean, *Chuang-tzu. Literato, filósofo y místico* emon eban argitara Manilan[6]. Hurrengo lan biak Caracasen (Andres Bello Unibertsitatea) argitaratu zituan: *Sesenta y cuatro conceptos de la ideología taoista* (1972) eta *Odas selectas del Romancero chino* (1974). Bigarren hau, *Shih Ching*, erromantze-bilduma garrantzitsuaren itzulpen iruzkindu bat zan. Handik hamar urtera, 1984an, edizino osotuago bat (*Romancero chino*[7]) argitaratu eban Elorduyk Madrilen, eta, lan horri esker, urte bereko Itzulpen Sari Nazionala lortu eban[8].

Bizkaiko Mungia herriko semeak, Loiolako Inazio eta Xabierko Frantziskoren lorratzen atzetik abiatu zanak, 88 urtegaz emon eban bere azken hatsa. Josulaguna, misiolaria, irakaslea, itzultzailea, ikerleak… 1989ko irailaren 1ean itxi ginduzan, Fujen-go (Taipei) Unibertsitatetik hur jesuitek

eukien gaixotegian. Argigarriak dira, hil barritan, Fujenen bertan Fernando Mateos jesuita lagunak idatzitako berbok:

> "El Padre Carmelo Elorduy ha sido el primer sinólogo español, por la profundidad de sus análisis, anchura de sus conocimientos de la China clásica y familiaridad con los caracteres. Nadie antes que él investigó en España directamente a los clásicos chinos, que se leían en traducciones de segunda o tercera mano. […] Investigador original, a Elorduy le interesaban la verdad del análisis y la justeza de la traducción más que el adorno literario o la abundancia de referencias bibliográficas. Aunque escribió siempre en castellano, su lengua natural era el vasco, tal como es hablado en los montes de Munguía; por ello no es de extrañar que aflorasen en su prosa algunos solecismos y descuidos ortográficos, que pudieron haber sido objeto de perfeccionamiento formal, pero muy poco conformes con la espontaneidad de la filosofía taoísta y motista"[9].

### *Shih Ching erromantze-bilduma: Romancero chino*[10]

Gorago esan dogunez, Elorduyk *Shih Ching* erromantze-bildumearen edizino bi atondu zituan, eta bigarrenagaz, *Romancero Chino*, Espainiako Itzulpen Sari Nazionala beragandu eban. Bildumeak 305 abesti ditu[11], eta garrantzi haundi be haundia izan dau Txinako kulturan:

> "No es exagerado afirmar de estas *Odas* que son la obra que ha dejado huella más profunda en el alma china. Han influido profundamente en la cultura china, primeramente, por sí mismas, luego, a través de Confucio. Confucio extrajo de los *Anales Shu ching* y de las *Odas* su sano humanismo. Decía: *Expongo, no invento nada. He creído y amado las doctrinas antiguas*"[12].

Erromantze edo abesti honeei erien jakinduria bete beharreko araua zan Txina zaharreko arlo politikoan. Era berean, Aita Elorduyk dinosku politikari handiek gurtu egiten zituela olerki moduko abesti honeek, kristau batek Ebanjelioak aitatzean erakusten dauan benerazino beragaz. Kristo aurreko 1122-221 epean[13], nobleziak ikasi egiten zituan abestiok euren eskoletan, eta Enperadoreak eta jauntxoek antolatutako oturuntzetan abesten ziran:

> "El mejor obsequio para agasajar a un alto personaje era cantarle aquella o aquellas *Odas* en las que se enaltecían las virtudes que adornaban al personaje obsequiado. Este tenía que responder cantando otra oda"[14].

Zer dala-eta, abestiokanako benerazino sendo hori? Kontua da, herriak asaba zaharren irakaspen gurenak ikusten zituala eurotan: bertan agertzen ziran herriak maite zituan bertuteak, baita herriak gorroto zituan bizio eta jokera ankerrenak be. Humanismoa erion bildumeari orduko txinatarren ustetan: bertuteak samur eta atsegin agertzen dira; bizioak, ostera, gaitzesgarri eta higuingarri.



Aita Elorduy, bere bulegoan[15]

Aita Elorduyk dinoskunez, oda honeek ez dira kantu erlijiosoak; izan be, kantuon filosofia munduko egunerokotasunari jagoko. Ha ta guzti be, erlijiosotasuna presente dago eurotan, orduko bizitza soziala *Shang Ti*-renganako[16] fedeak goitik behera beratuta egoan-eta:

> "Lo que apreciaban en las *Odas* así gobernantes como gobernados era su sano y equilibrado humanismo. A los gobernados interesaba mucho que sus reyes, ministros y funcionarios fueran varones justos y virtuosos. A los gobernantes, que el pueblo fuera dócil y virtuoso. Este humanismo es lo que se buscaba y apreciaba en las *Odas*. Porque, en aquella primitiva sociedad, no eran las leyes las que gobenaban. Eran hombres los que gobernaban a los hombres. Aún no se habían inventado los mecanismos legislativos a los que deberían sujetarse gobernantes y gobernados. […] Los gobernantes buscaban las directrices de su gobierno en los *Anales*, *Crónicas* y sobre todo en la *Odas*. […] Son, pues, las *Odas* la fuente principal de la cultura china"[17].

Gorago esan dogunez (11. oh.), Konfuziok (K.a. 551-479) hiru ataletan banatu zituan berak baturiko 305 abestiak. Elorduyk egindako edizinoari lotzen bagatxakoz, abestiok lau atal nagusitan banatuta dagozala ikusiko dogu:

- Lehenengo atalak (1-160) *Kou fung* ("Estatuetako doinuak") dau izena, eta 15 jaurerri edo erresumatan baturiko 160 abesti daukaz; halandaze, liburuko erdiak baino gehiago dira atal honetako abestiak. Ezagunenak eta kantatuenak be badira. Herriak maite eta mespretxatzen dauana kantetan dabe: emakumeen edertasuna, goi agintarien prestutasuna eta dotoretasuna, senar-emazteen maitasuna eta desamodioa, dinastien dekadentzia…
- Bigarren atalak (161-234) *Siao ya* ("Solemnitate txikia") dau izena, eta zortzi liburukitan banaturiko 74 abestik osotzen dabe. Bigarren mailako ospakizunetan abesten ei ziran. Kasuon, gai herrikoiak, politikoak eta moralak alkarren ondoan ikusten doguz. Abestiok jaun feudalen gorteetako musikalari itsuek be abesten zituen, batzar eta asanbladetan, hatan be.
- Hirugarren atalak (235-265) *Ta ya* ("Solemnitate handia") dau izena eta 31 abesti batzen ditu. Gorte inperialean abesten ziran, agintean egoan dinastiaren lorpenak goraipatzeko. Lehenengo ataleko abestiak baino luzeagoak dira, eta eurotan Hirugarren Dinastia fundatu eben politikari handien ideiak topau geinkez.
- Laugarren atalak (266-305) bost liburuki ditu eta *Sung* ("Ereserkiak edo Laudorioak") dau izena. Guztira 40 abesti dira. Pentsetan da azken bost ereserkiak Bigarren Dinastian (K. a. 1766-1122) sortuak dirala, baina gainontzeko-

Shih Ching *erromantze-bildumea*

ak ezin izan dira datatu, barriagotzat joten dira baina.

Erromantze-bilduma honetako abestiak erre egin ziran Kristo aurreko 221. urtean. Izan be, badirudi Ch´in Shih Huang enperadoreak ez zituala ondo hartu letratu Konfuzio zaleek eginiko kritikak, eta konfuzionistek erabilten zituen obra guzti-guztiak erreteko agindua emon eban. Edozelan be, *Han*[18] dinastiaren hasieran, posible izan zan bildumea berregitea, herriaren oroimen kolektiboan sakon be sakon josita gelditu ziran-eta kantuok.

### *Hamaika abesti Txina zaharreko*

*Shih Ching* bildumako lau ataletako olerkiak ekarri doguz hona; baina, logikoa danez, lehenengo atalekoak dira nagusi. Itzulpenari jagokonez, "Nosotros no podemos más que dar una pobre traducción de su letra"[19], dinosku Aita Elorduyk, erromantze-bildumeak lerro arteetan daukazan edertasuna eta sakontasuna azpimarratuz. Parkatu begi mungiarrak gure ausardia, baina uste dogu, zerutik, pozik ikusiko dituala berak itzulitako olerkietariko batzuk amagandik ikasitako hizkuntzara aldatuta. Hona hemen, olerkiok:

I.12

MIKA-KABIA

*Eztei-eresia*

Mikeak bere kabia dau.
Usapalak laster izango dau.
Neska honek bere ezteiak ospatuko ditu.
Ehun gurdi jatorkoz abegikor.

Mikeak bere kabia dau.
Usapalak laster hartuko dau.
Neska honek bere ezteguak ospatuko ditu.
Ehun gurdikoa da haren arreoa.

I.41

IPAR HAIZEA[20]

Ipar haize hotz-hotza dabil.
Euria eta edurra goian-behean.
Nire lagun onak, asko maite nozuenok,
emon eskua alkarri eta ihes egin dagigun alkarregaz.
Baztertu dagigun geure burua apalki.
Arin, preminazkoa da-eta.

Ipar haizea haserre dabil.
Edurra mardul-mardul jausten da.
Nire lagun onak, asko maite nozuenok,
emon eskua alkarri eta ihes egin dagigun alkarregaz.
Baztertu dagigun geure burua apalki.
Arin, preminazkoa da-eta.

Gorri ikusten dan guztia luki bat da.
Ez da baltzik ikusten, bela bat ez danik.
Nire lagun onak, asko maite nozuenok,
emon eskua alkarri, igon gurdi berean.
Baztertu dagigun geure burua apalki.
Arin, preminazkoa da-eta.

I.43

DORRE BARRIA[21]

Dorre barria tantai zoragarria bailitzan doa gorantz.
Ibai emaritsua sakona da.
Mazal eta atsegin baten bila nenbilen,
eta zaran arrunt eta tripandi bat aurkitu dot.

Dorre barria ikaragarri doa gorantz.
Ibai emaritsua arranditsu doa.
Mazal eta atsegin baten bila nenbilen,
eta zaran txar bategaz egin dut topo.

Sarea prest dago.
Antzar handi bat jausten da bertan.
Mazal eta atsegin baten bila nenbilen,
aurpegia bularrean sartuta daukan konkordun bategaz nago.

I.52

## SAGUAREN DEFINIZINOA[22]

Sagua definitzen dot: haren gorputza narruz estalduta dago.
Gizona deitzen da eta ez dauka gizalegerik.
Gizalegerik bako gizona, zelan ez da hilten?

Sagua definitzen dot: haginak ditu.
Gizona da eta ezin dau bere burua kontrolatu.
Bere burua kontrolatu ezin dauan gizona, zelan ez da hilten?

Sagua definitzen dot: gorputza dauka.
Gizona da eta ez ditu errituen (*li*) formak errespetatzen.
Erriturik bako gizona, zelan ez da hil daborduko?

I.56

## BIZITZA ATSEGINGARRIA

Zoriontsu bizi da bere txabolan, haranaren ertzean.
Han handitzen da haren bihotz handia,
han egiten dau lo, han izartuten da bakarti.
Zin egiten dau ez dauala inoiz ahaztuko bere bizitza ha.

Zorioneko bizi da bere txabolan, mendi malkartsukoan.
Han zabaltzen da haren bihotz handia,
han egiten dau lo bakarti, han izartuten da, eta abestu.
Zin egiten dau ez dauala sekula beste bategaitik itxiko.

Alai bizi da lautadaren ganeko bere txabolan.
Han gaixotuten da gizon handi hau.
Bakarti, han egiten dau lo, han izartuten da.
Zin egiten dau ez deutsola inoiz inori emongo bere zoriontasunaren barri.

I.59

## BANBU-KAINABERAK[23]

Banbu-kainabera luze eta zorrotzak.
Eurokaz egiten da arrantzan *Ch´i* ibaian.
Zelan ez pentsatu zugan
urrun be urrun bizi nazala eta bihurtzeko erarik barik?

Ezkerretara, *Ch´üan* ibaiaren iturburuak dagoz.
Eskoatara, *Ch´i* ibaia doa.
Umetan, joan egin nintzan guraso eta neba-ahiztakandik urrunduta.

Eskoatara, *Ch´i* ibaia doa.
Ezkerretara, *Ch´üan* ibaiaren iturburuak dagoz.
Irribarre pinpirinek aho alaien marfilak erakusten ditue.
Zintetako jadeen tin-tinak euren ibilkerea markatzen dau.

Emaritsu doa *Ch´i* ibaia.
Pinuzko txalupea daukat, ipuruzko arraunakaz.
Txaluparatu egingo naz osteratxu bat egiteko.
Eta nire bularra estutzen dauan tristurea aienatzeko.

II.206

## EZ BULTZATU GURDI HANDIA[24]

Ez hasi gurdi handia bultzatzen.
Hautsez betetea baino ez dozu lortuko.
Ez egon beti erosta joten.
Gaixotzea baino ez dozu lortuko.

Ez hasi gurdi handia bultzatzen.
Hautsagaz zure begiak itsututea baino ez dozu lortuko.
Ez egon beti erosta joten.
Ez dozu argirik egingo, ez dozu ezer argituko.

Ez hasi gurdi handia bultzatzen.
Hautsez betetea baino ez dozu lortuko.
Ez egon beti erosta joten.
Zeure burua zama handiago bategaz kargatzea besterik ez dozu lortuko.

II.219

## EULI BERDEA

*Kalumniatzaileak*

Euli berde bat hemendik dabil.
Hesian pausatu da.
Jaun prestu horrek, ez sinestu kalumniatzaileen esanak.

Euli berde bat hemendik dabil.
Azufaifoan[25] pausatu da.
Ez dago hesirik kalumniatzaile honeentzat.

Nahastu eta aztoratu egiten ditue Estatu guztiak.

Euli berde bat hemendik dabil.
Hurritzean pausatu da.
Ez dago hesirik kalumniatzaileentzat.
Korapilatu egin gura gaitue zu eta ni.

III.239
## *HAN* MENDIAREN OINA[26]

Begitu zein lerden hazten diran *Han* mendiaren oinean
hurritzak eta *hu* arbolak (enbor gorriko elorriak).
Mazal-mazala da gure Soberanoa.
Bere mazaltasunak aberastasun handiak dakartsoz.

Distiratsu eta purua da jadezko burruntzali hau.
Pattar usaintsu eta urreztatua dauka.
Mazal-mazala da gure Soberanoa.
Bedeinkapenak eta aberastasunak jausten dira beragana.

Miruak, bere hegadan, arin-arin zeharkatzen dau zerua.
Arrainek salto egiten dabe euren ur sakonetan.
Mazal-mazala da gure Soberanoa.
Zelan ez ditu barrituko gizonak!

Zerbitzatuta dago, pattar purua.
Gorri koloreko opagaia prest dago.
Opetsi eta sakrifikatu egingo ditu.
Horregaz bedeinkapen ederrak beraganduko ditu.

Joriak eta ederrak dira haretx eta arte hareek.
Herriak eurokandik sutondorako egurra txikituko dau.
Mazal-mazala da gure Soberanoa.
Espirituak (Jainkoak) sarituko dau.

Sarri-sarriak hazten dira han *ko* lekaduna eta beste aihen-bedar batzuk.
Zugatxetatik eta adarretatik gora doaz.
Mazal-mazala da gure Soberanoa.
Haren portaera ez da inoiz okertzen. Holan, inon diran zorion guztiak batzen ditu.

IV.270
## ZERUAK EGIN EBAN[27]

Zeruak egin eban mendi altu hau.
*T´ai* erregeak goldatu eban, eta landu.
*Wen Wang*-ek bizitzeko moduko eta atsegin bihurtu eban.
*Ch´i* mendi hau landaraz estaldurik,
gaur egun bide lauez sareturik dago,
haren seme-alabek eta birlobek kontserbatzen dabe.

IV.279
## UZTA ONEKO URTEA[28]

Uzta oneko urtea, artatxiki ugari, arroz asko.
Garautegi nagusiak daukaguz ehunka mila eta miliotarako.
Pattarrak egingo dira, hartzituko dira mostoak.
Danak ekarri eta gure aitita-amamai opetsiko jakez.
Zehatz beteko doguz egin beharreko erritu guztiak.
Inon diran zorion guztiak jausiko dira guganantz.

**OHARRAK**

[1] Sinologoa: Txinako historia, kultura, hizkuntza… ikertzen dauanari esan ohi jako.

[2] Jesusen Konpainia: *Wuhu y sus misioneros*. *Un vuelo sobre el Yangtze*, Talleres Gráficos Zorrilla, Bilbo, 194[6].

[3] Mateos, Fernando: "Un insigne sinólogo español: el Padre Carmelo Elorduy", *Encuentros en Catay* 4, 1990, 319-321 (Departamento de Lengua y Literatura Españolas, Universidad de Fujen-Taipei, Taiwan).

[4] Eleuterio Elorduy (Mungia, 1896 - Azpeitia, 1990). Jesuita ezaguna. Greziar filosofiako irakaslea, eta munduko espezialistarik handienetariko bat Francisco Suárez *Doctor Eximius* (1548-1617) jesuita, teologo, filosofo eta jurista espainiarraren obraren ganean. Jubilatu zanean (1966), Deustuko Unibertsitateko komunitatera etorri zan, eta han doktorego ikastaroak-eta emoten jardun eban.

[5] Elorduy, Carmelo: *La gnosis taoísta del Tao Te Ching* [edizino elebiduna], Facultad de Teología, Oña, 1961.

[6] Fernando Mateos adituak dinoskunez: "[…] libro fundamental para comprender el taoísmo filosófico y gustar el poético lenguaje de uno de los mejores escritores de la China clásica" (*Op. cit*., 320-321).

[7] Elorduy, Carmelo: *Romancero chino*, Editora Nacional, Madril, 1984.

[8] Aita Elorduyren garaiteko liburuak honakook ditugu: *Humanismo político oriental* (Madril, 1976); *Lao Tse / Chuang Tse: Dos grandes maestros del taoísmo* (Madril, 1977); *Libro de los cambios* (Madril, 1983); eta *Moti. Política del amor universal* (Madril, 1987). Fernando Mateos sinologoaren ustetan, azken obra biak pentsamendu klasikoaren libururik gatx eta esanguratsuenetarikoak dira. Azken liburua argitaratu zan sasoian Aita Elorduy makal eta gaixorik egoanez, Mateosek berak egin behar izan eutsan liburuaren sarrera.

[9] *Op. cit*.: 321. or.

[10] Era askotara itzuli da liburu honen izenburua: *Romancero chino*, *Libro de los Cantares*, *Libro de las Odas*, *Odas*…

[11] Uste da, K.a. 1122-570 epean 3.000 olerki inguru egozala. Konfuziok 305 pieza batu, eta hiru ataletan banatu zituan.

[12] Elorduy, Carmelo: *Romancero chino*, 9. or.

[13] Hirugarren Dinastiaren hasieratik (K.a. 1122 ) "Estados Combatientes" (K.a. 403-221) deituriko garaiaren amaierara arte.

[14] *Romancero chino*, 9. or.

[15] Alvarez, José Ramón: "The Spanish Sinologist in the 20th Century: Carmelo Elorduy", http://ccs.ncl.edu.tw/newsletter_107/30.pdf.

[16] Jainkoari izen bat baino gehiago emoten jakozan garai zaharretan: Zerua (*T´ien*), Soberanoa (*Ti*), eta Goiko Soberanoa (*Shang Ti*).

[17] *Romancero chino*, 16-17.

[18] *Han* dinastia: K.a. 206 - K.o. 220.

[19] *Romancero chino*, 24. or.

[20] Ihes egiteko eta bizitza pribatura erretiratzeko gomendioa. Ekaitz politiko baten zantzuak dagoz (Elorduyren oharra).

[21] Ernegazinoa, Wei-ko Hsüan (K. a. 717) erregearen portaereagaitik. Chí printzerrian semearentzako emazte bat topetako agindua emon eban. Kargutu zanean aukeratutakoaren aparteko edertasunaz, berarentzat hartu eban. Jauregi bat eregi eban harentzat ibai Horiaren ertzetan (Elorduyren oharra).

[22] Gizon izena merezi ez daben gizonak (Elorduyren oharra).

[23] Wei-ko printzesa bat herriminak jota dago (Elorduyren oharra).

[24] Ez egon beti erosta joten (Elorduyren oharra).

[25] Azufaifo: jinjolero (*Zizyphus vulgaris* / *Zizyphus lotus*). Txinatik etorritako fruta-arbola berezia.

[26] Wen Wang-en doeak, zeruak bedeinkatuak (Elorduyren oharra).

[27] Abesti honetan aitatzen dan *Ch´i* mendia *Chou*-tarren feudoa izan zan, inperioko tronura heldu aurretik (Elorduyren oharra).

[28] Uzta eskertzeko eginiko eskeintzetan abesten zan (Elorduyren oharra).

XABIER BOVEDA

# Pablo Neruda

Neftali Ricardo Reyes Basoalto Parralen (Txile) jaio zen 1904an. Zorionez, Pablo Neruda gaitzizena hartuta, eta aitari jaramonik egin barik, ez zion idazteari utzi. Horrela, Txile eta Hegoamerikako poeta handienetako bat izatera heldu zen. Bizimodu-aldaketek, lagunek, egoera politiko eta sozialek, eta lekuek haren poesiaren ugaritasuna eragin zuten. Baina beti izan zuen lagun naturaren presentzia, lurrarekiko atxikimendua.

Txikitan Temucora joan zen. Lur austral hotz hartan natura maitatzen ikasi zuen. Miraz zegoen izadiaren barru-barruan: oihanak, aintzirak, ibaiak, mendiak nongura… eta itsaso zabala aurrean. Hango eskolan hasi zen, hamar urte zituela, poesiarekin jolasten eta esperimentatzen. Eta nesken ikastetxeko zuzendariak, Gabriela Mistralek, adorea eta bultzada eman zion idazten jarrai zezan. Biak ala biak lagun onak izan ziren gerora.

Gaztaroan poesia modernistaren eragina izan zuen. Santiagora joan zen unibertsitate frantses ikasketak egitera, eta *Crepusculario* (*Ilunabarrekoa*) argitaratu zuen 1923an. Amaiera tristeko maite-afera batek bigarren poema liburua inspiratu zion: *Veinte poemas de amor y una canción desesperada* (1924, *Amodiozko hogei poema eta kantu etsi bat)*. Hogei urte baino ez zituen, eta hogei poema eta bat gehiago sortu zituen barne-barneko sentimenduz, maitasun esperientzia mingarri bat metaforaz betetako era original, iradokitzaile eta indartsuan eskainiz. Obra horrek berehalako sona eta arrakasta izan zuen, eta irakurlea harrapatu eta liluratu egin zuen. Liburu soil bi argitaratuak zituela, Txileko poeta handienetakotzat hartu zuten.

Hala ere, ez zen poesian gordeta geratu, kanporako joera zuen, eta 1927an Txileko enbaxadorelana onartu zuen. Asiako hainbat herritan ibili zen (Txina, Myanmar, Zeilan, Singapur), eta, ondoren, Buenos Aires, Bartzelona eta Madrilen. Bakardadea eta bizitza bohemioa izan zuen urte haietan, eta

poesian surrealismoarekin esperimentatu zuen, herstura existentziala islatuz. Horrela sortu zen *Residencia en la tierra* (1931-1935, *Egoitza lurrean*) liburu saila.

Espainiako Gerra Zibila hasi zenean Madrilen zegoen enbaxadore. Hasieratik jarri zen errepublikaren alde, eta gogor salatu zuen Francoren matxinada militarra. Esperientzia larri horretan Nerudaren poesia erabat aldatu zen, herriaren aldeko eta faxismoaren aurkako konpromisoaren aldarri bihurtu zen. Poetak minez ikusi duena geuk ere ikus dezagun deitzen digu: "zatozte odola kaleetan ikustera!". Poesia sozialaren bide horrek gailurra erdietsi zuen *Canto general* (1950, *Kantu orokorra*) poema liburuarekin. Liburu hori Amerikako kontinente osoaren poema luzea da, une eta gertaera nagusien kronika epikoa.

Parisen eta Mexikon kontsul-lanetan ibili ondoren, Txilera itzuli zen, eta 1945ean alderdi komunistako kide egin zen. Senatari izendatu zuten, eta Gonzalez Videlaren gobernuaren aurkako kritika gogorrak egin zituen. Gobernuak 1948an ilegalizatu egin zuen alderdi komunista, eta urtebete geroago Neruda bera atxilotzeko agindua eman zuen.

Poeta txiletarrak erbestera ihes egin behar izan zuen. Parisen babesa eman zioten lagunek, eta gero Italian bizi izan zen, Caprin eta Napolin. Hiru urteko erbestaldiaren ostean, Txilera itzuli zen, eta herritarren harrera beroa jaso zuen. Garai hartako liburu nagusia *Odas elementales* (1954-1959, *Oda elementalak*) dugu. Obra horretan Nerudaren laugarren etapa ikus dezakegu. Konpromiso soziala presente dago, baina era berri batean, itxaropenez eta baikor agertzen da poeta txiletarra, herriaren borrokan eta garaipenean uste osoa jarrita: "Komunistak gara, Rikardo. Zurekin/ irribarrez jarraitzen dugu eguneko lanean./ Luzea da borroka, baina irabazi egingo dugu./ Zin degizugu, kamarada". Etapa horretan eguneroko gauza txikiak, gauza material eta unibertsalak, bihurtzen ditu poesia gai. Azken lanetan elementu autobiografikoak garrantzi handiagoa hartzen du.

1971n Literatura Nobel Saria eman zioten. 1973an Frantziako enbaxadore izateari uko egin behar izan zion, osasun arazoengatik. Urte berean, irailaren 11n, Augusto Pinocheten kolpe militarra izan zen. Nerudaren gaixotasuna larriagotu egin zen, eta astebete geroago hil egin zen. Haren etxea arpilatu egin zuten, eta liburuak erre. Baina poesiaren indarra ezin izan zuten ezabatu.

### *POESIARI ODA*

Berrogeita hamar urte inguru
bidean
zurekin, Poesia.

Hasieran
oinak trabatzen zenizkidan
eta ahuspez jausten nintzen
lur ilunaren gainera
edo begiak lurperatzen nituen
lokatzean
izarrak ikusteko.

Geroago estu inguratu ninduzun
maitalearen beso biekin
eta nire odolean
igo zinen
aihen-belar baten erara.
Ostean
kopa
bihurtu zinen.

Ederra
izan zen
zu isurtzea ahitu gabe,
zure ur agortezina libratzea,
tanta bat bihotz erre batean jausi eta
errautsetatik berpizten zela ikustea.

Baina hori ere ez zen aski izan.
Hainbeste denboran zurekin
begirunea galdu nizun.
Ez zintudan jada ikusten
naiade lurruntsu gisa,
lixibagile lanetan jarri zintudan
okindegietan ogia saltzen,
andre-ehule xumeekin iruten
metalgintzan burdina jotzen.

Eta nirekin jarraitu zenuen
munduan zehar bidelagun,
baina zu ez zinen orduan
nire haurtzaroko
estatua loretsua.
Orain
ahots sendoaz
mintzo zinen.

Zure eskuak
harriak bezalako gogorrak izan ziren.
Zure bihotza
kanpaien iturburu
oparoa izan zen,
ogia egin zenuen esku beteka,
konpainia
bilatu zenidan,
ez emakume bat,
ez gizon bat,
ezpada milaka, milioika.

Elkarrekin, Poesia,
joan ginen
borrokara, grebara,
desfilera, portuetara,
meatzera,
eta barre egin nuen irten zinelarik
bekokia ikatzez zikinduta,
edo zerrategietako zerrauts
usaintsuaz koroatuta.
Eta ez genuen bideetan lo egiten.

Langile aldrak genituen zain,
euren alkandora garbitu berri eta bandera gorriekin.

Eta zu, Poesia,
lehen tamalez hain lotsatia zinena,
aurrean
joan zinen,
eta guztiak
zure eguneroko izar jantziarekin
ohitu ziren,
zeren oinazturen batek zure familia salatu bazuen ere
zeure zeregina bete zenuen,
zeure ibilera jendeen ibileren artean.

Nik erabilgarria eta baliagarria izateko
eskatu nizun,
irina edo metala bezala,
goldea, lanabesa,
ogia eta ardoa
izateko prest, Poesia,
buruz buru borrokatzeko
eta odoletan jausteko prest.

Eta orain,
Poesia,
eskerrik asko, emaztea,
arreba edo ama
edo andregaia,
eskerrik asko, itsas olatua,
laranja-lorea eta bandera,
musika-motorra,
urrezko petalo luzea,
urpeko kanpaia,
aletegi
iraungiezina,
eskerrik asko,
nire egun
bakoitzeko lurra,
nire urteetako
zeru-lurruna eta odola,
zeren lagun izan zintudan

goratasun tirabiratsuenetik
behartsuen mahai soileraino,
zeren nire ariman
burdin zaporea
jarri zenuen
eta gero hotza,
zeren jende arrunten
maila ospetsura
jaso ninduzun,
Poesia,
zeren
zurekin
higatzen nintzen neurrian
zuk jarraitu zenuen
zure freskotasun irmoa garatzen,
zure oldar gardena,
apurka-apurka
lur bihurtzen nauen denborak
nire kantuaren urak
betiko isurtzen utziko balitu bezala.

(*Odas elementales, 1954*)

## *POZ HANDIA*

Aztertu nuen itzala ez da orain nirea.
Zutoinaren poz iraunkorra dut nik,
basoen herentzia, bideko haizea
eta egun hautatu bat argi lurtarraren azpian.

Ez dut idazten beste liburu batzuek lotu nazaten,
ezta lili ikastun amorratuentzat ere,
ezpada ura eta ilargia, ezin aldatuzko ordenako elementuak,
eskolak, ogia eta ardoa, gitarrak eta lanabesak
eskatzen dituzten bizilagun xaloentzat.

Herriarentzat idazten dut, nire poesia
bere landa begiekin ezin badu irakurri ere.

Unea iritsiko da non lerro bat, nire bizitza
inarrosi zidan hatsa, haren belarrietara helduko den,
eta orduan nekazariak begiak jasoko ditu,
meatzariak irribarre egingo du harriak txikituz,
palankariak bekokia garbituko du,
arrantzaleak hobeto ikusiko du eskuak erreko dizkion arrain taupakari baten distira,
mekanikaria, garbitu berri, aratz, xaboi
lurrinez beterik, nire poemei begira geratuko da,
eta haiek esango dute agian: "Lagunkide bat izan zuan".

Nahikoa dut hori, hori da gura dudan koroa.

Nahi dut lantegi eta meategi irteeretan
nire poesia lurrari, aireari,
jende gaizki tratatuaren garaipenari itsatsita egon dadin.
Nahi dut, astiro eta metalez, kutxa
baten antzera, eraiki nuen gotortasunean,
gazte batek, irekirik, aurrez aurre, bizitza aurki dezan,
eta arima barneratuz nire pozak, garaiera ekaiztsuan,
sortu zituen zurrustak uki ditzan.

(*Canto general, 1950)*

## *OIHAN TXILETARRA*

… Sumendien pean, bisuts-lekuen aurka, aintzira handien artean, oihan txiletar lurrintsu, isil, nahasia datza… Oinak orbeltza hilean hondoratzen dira, adaxka hauskor batek klask dagi, rauli tantaiek garaitasun harroa erakusten dute, oihaneko txori bat gurutzatzen da, hegalei daragie, adakera abarotsuetan pausatzen da. Eta gero haren gordelekutik oboe baten antzeko soinua aditzen da… Sudurretik arimaraino sartzen zait ereinotzaren lurrin basatia, boldoaren lurrin iluna…

Guaiteketako altzifreak bidea daragozkit. Mun-

du bertikala da: txorien nazioa, hostoen elemenia… Harri batean oztopo egin dut, agiri den barrunbea aztarrikatzen dut, ilaje gorriko gaitzeko armiarma bat begira dagokit , adi-adi, geldirik, karramarro bat bezain handia… Karabo urrekara batek bere jario atsitua jaurtitzen dit, eta bat-batera haren ortzadar distiratsua oinaztu baten eran ostentzen da. Igaroan ni baino askoz garaiagoa den ira sail bat zeharkatzen dut, aurpegian hirurogei negar-anpulo erortzen zaizkit haren begi musker hotzetatik, eta atzean haren abanikoak ikara-dardaretan geratzen zaizkit luzaro…

Enbor usteldu bat: altxor bikaina!... Onddo beltz eta urdinek belarriak eman dizkiote, landare bizkarroi gorriek errubiz bete dute, beste landare nagi batzuek bizarra utzi diote, eta haren errai usteletatik suge bat jalgitzen da, jario bat bezala, enbor hilari arima ihesi joango balitzaio bezala. Haratago zuhaitz bakoitza haren kidekoetatik urrunduta dago… Zutik daude oihan sekretuaren alfonbra gainean, eta hostotza bakoitzak estilo desberdina dauka -lineala, kizkurra, zarbatsua, lantzakara-, mugimendu infinituzko artazi batek ebakia bailitzan…

Troka bat: behean ur gardena granitoaren eta harrinabarraren artean lerratzen da. Tximeleta bat, garbia limoi bat legez, hegaz, uraren eta argiaren artean dantzan. Nire ondoan oleska ditut ehunka calceolaria beren burutxo horiak mugituz… Goialdean, oihan miragarriaren zainetako tantak bailiran, copihue gorriak (lapageria rosea) kulunkatzen dira… Copihue gorria odolaren lorea da, copihue zuria elurraren lorea da…

Hostoen dardaraldi batean azeri baten ziztuak isiltasuna zulatu du, baina isiltasuna hostaila hauetako legea da… Ozta-ozta animalia nahasi baten oihu urruna… Txori ezkutatu baten intersekzio sarkorra… Unibertso begetala xuxurlaka ozta, ekaitz batek lurreko musika guztia piztu arte.

Oihan txiletarra ezagutzen ez duenak ez du planeta hau ezagutzen. Lur haietatik, lokatz hartatik, isiltasun hartatik irten naiz ni ibiltzera, munduan zehar kantatzera.

(*Confieso que he vivido*, 1974)

## *FAREWELL*

1

Zure barne-barnetik, belauniko,
ume triste bat, ni lakoa, begira ari zaigu.

Haren zainetan gartuko den bizitza horrengatik
gure bizitzek elkarrekin behar lukete kateatu.

Haren eskuengatik, zure eskuen alabak baitira,
nire eskuek ere hil egin behar lukete.

Haren begi lurrean irekietatik
malkoak ikusiko ditut egun batez zureetan.

2

Nik ez dut hura nahi, Maitea.

Ezerk lotu ez gaitzan,
ez gaitzala ezerk batu.

Ez zure ahoa lurrindu zuen hitzak
ez zure hitzek esan ez zutenak.

Ez izan ez genuen maitasun festak
ez zure leiho ondoko negarrek

3

(Maite dut musu eman eta gero
alde egiten duten marinelen amodioa

Agindua uzten dute baina
ez dira egundo itzultzen.

Kai bakoitzean emakume bat zain:
marinelek musu eman eta badoaz

Gau batean herioarekin etzaten dira
itsasoaren zolan.

4

Maite dut musuetan, ohean eta ogian
partitzen den amodioa.

Betikoa izan daitekeen
edo uxoa izan daitekeen amodioa)

Berriz ere maitatzeko
lokabe iraun nahi duen amodioa

Amodio jainkoetsi etorri datorrena
amodio jainkoetsi joan doana

5

Jada ez dira nire begiak zure begietan xarmatuko,
jada ez da nire mina zure ondoan goxatuko.

Baina noan lekurantz eramango dut zure soa
eta zoazen lekurantz eramango duzu nire mina.

Zeurea izan nintzen, nirea izan zinen. Zer gehiago?
Elkarrekin
egin genuen xoko bat amodioa iragandako bidean.

Zeurea izan nintzen, nirea izan zinen. Zu maite zaituenarena izango zara,
zure baratzean nik ereindakoa batzen duenarena.

Ni banoa. Triste nago: baina beti nago triste.
Zure besoetatik nator. Ez dakit norantz noan.

… Zure bihotzetik agur egiten dit ume batek.
Eta neuk ere agur egiten diot.

(*Crepuscularío, 1923*)

## *WALKING AROUND*

Kontua da gogaitzen naizela gizon izateaz.
Kontua da sartzen naizela dendetan eta zinemetan
ximelik, barruan itxirik, feltrozko beltxarga
jatorri eta errautsezko uretan igerian bezala.

Ile-apaindegi usainak negar eragiten dit garrasi batean.
Harri edo artile atsedena besterik ez dut nahi,
ez saltegirik, ez lore-baratzerik, ez salgairik,
ez betaurrekorik, ez igogailurik ikustea besterik ez dut nahi.

Kontua da gogaitzen naizela nire oin eta nire azazkalez
eta nire ileaz eta nire itzalaz.
Kontua da gogaitzen naizela gizon izateaz.

Hala ere atsegingarria litzateke
notario bat ikaratzea lili moztu batez
edo moja bati heriotza ematea belarri ukaldi batez.
Ederra litzateke
kaleetan aizto berde bat eskuan ibiltzea
oihuka hotzaren hotzez hil arte.

Ez dut jarraitu nahi lanbroetako sustrai izaten,
zalantzakor, zabal eginik, loguraz dardarka,
ahuspez, lurraren errai bustien gainean,
xurgatuz eta hausnartuz, egunero janez.

Ez dut niretzat hainbeste ezbehar nahi.
Ez dut jarraitu nahi sustrai eta hilobi,
lurpeko huts, hilen upategi,
hozmindurik, saminez itota.

Horregatik astelehen egunak su hartzen du petrolioak legez
ikusten nauenean natorrela nire kartzela aurpegiarekin
eta igarotzean uhuri egiten du gurpil zauritu bat iduri,
eta odol beroko urratsez inguratzen da gauerantz.

Eta bultzatzen nau halako bazter, halako etxe hezeetara,
hezurrak leihotik ateratzen diren ospitaleetara,
halako ozpin usaineko zapata-dendetara,
pitzadurak lako kale beldurgarrietara.

Bada sufre koloreko txoririk eta heste nazkagarririk
gorroto ditudan etxeetako ateetan zintzilik,
bada kafeontzian ahaztutako hortzorderik,
bada ispilurik
lotsaz eta izuz negar egin beharko zukeenik,
bada non-nahi aterkirik, eta edenik, eta zilborrik.

Ni pasieran nabil egonarriz, begiz, zapataz,
amorruz, ahanzturaz,
igaroan, zeharkatzen ditut bulegoak eta ortopedia-dendak,
eta patioak non arropak dauden alanbre batetik eskegita:
galtzazpiak, xukaderak eta alkandorak
negar-malko geldi zikinak isurtzen dituztenak.

(*Residencia en la tierra 2, 1935*)

SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLO

# Gabriel Aresti, fedegabeko idazle *erlijiosoa*

Gabriel Arestik bere burua sinesgabetzat jo zuen (ateotzat? agnostikotzat?). Hala ere, nire ustez eta, xehetasunak xehetasun Gabriel Aresti idazle erlijiosotzat eduki dezakegu; bere belaunaldiko euskal idazleetan erlijiosoena omen. Are gehiago, nire ustez GAren literatura-lanak interpretatzeko orduan, erlijioa zaigu –kristau erlijioa, nagusiki–, ardatzik sakon eta adierazgarriena.



Ez naiz ni, egia esan, horrelaxe deritzan lagun bakarra. *Maldan behera*ri dagokionez, honelaxe uste zuen Koldo Mitxelenak: "(En *Maldan behera*) *hay una presencia reiterada, casi obsesiva… de lo religioso: Aresti recuerda a menudo a Buñuel, aunque el tratamiento que aquél* (hots, Aresti) *reserva a los motivos religiosos tiene poco de paródico*"[1]. Eta erlijioaren zantzuak are esplizituagoak zaizkigu *Harri eta Herri* zikloko liburuetan. Zakuan zer den ikusteko, ahurra bat aski: "*Eta juzgatzen banaute / eztit inporta. / Begira / ni naiz / gizona / gizonaren semea, / gurutze batean behin il / zena, / Golgota haretan / akabatu / zena…*"[2].

***Zer da erlijioa?***

G. Aresti idazle erlijiosotzat hartzeak eskatzen dit *erlijioa* zer den zehaztea. Ez da erraza, erlijioari buruz definizio asko baitaude, ikuspuntu askotakoak ere bai. Oro har, erlijioak *sakratuarekin giza erlazioak* izendatzen ditu[3]. Gehienetan, 'sakratu'a edo transzendentzia 'Jainko(ar)ekin' lotuta agertu ohi zaigu, baina, berez, jainkoa, transzendentzia, absolutua edota misterioa ez dira kontzeptu unibokoak, 'numinoso' zaigun *misterium tremendum et fascinanse*kiko giza esperientzia askorekin loturik ager baitakiguke[4]: lilurapena, ekarpena, begiramena, maitasuna[5], beldurrarekin… Giza esperientzia horiek, berez, ez dute soilik Jainkoarekin erlazionatuta egon behar, baizik eta subjektu edota objektu askorekin ere. Mendeetan zehar, haatik, 'fede-taldeek' erlijioa Jainkoarekiko harremanetara mugatu egin dute. Hori dela eta, uste dut, Jainkoak gizarte-protagonismoa galdu ahala, erlijioa ere joan egin zaigula. Egiatan 'joan' ala 'transformatu' edota 'ordezkatu'?

*Ordezko-erlijioak*

Max Weber-en (1864-1920) ikerketa abiapuntu hartuta[6], soziologo modernoek uste dute gizakiek, Jainko(ar)engandik aldendu ahala, ez ohi dutela, sarritan, erlijioa bertan behera uzten, baizik eta, Jainkoa zelakoaren ordez, beste objektu/subjektu bat bereganatzen dutela, zeinari jainkotasunaren ezaugarriak egozten baitizkiote: dela iraultza, dela arrazoia edo askatasuna[7] (diktaduraren bidez eskuratutakoa bada ere), dela herri edo nazioa, dela dirua, dela plazera[8]… Hori dela eta, Jainkorik gabeko 'erlijioak' sortu eta ugaldu egin zaizkigu, zeintzuek jainko-erlijio tradizionalen *betebeharrak* eta *helburuak* berberak (berdintsuak) sortarazten baitituzten[9].

Laburrean, baliteke transzendente edota absolututzat jotzen dugun objektu/helburu batek gizakiei exijitzea erlijio tradizionaletan Jainkoak eskatzen zituen agindu edota ekintza berdintsuak: obedientzia edo mendetasuna, begirunea edota kultua, beldurra, dudagabekotasuna, heriotzarainoko eskaintza: propioarena zein besterena, emozioa, suhartasuna, goratu edota gurtzea, eta abar. Beraz, Jainkoa ez den objektu/helburu absolutu horrekiko gizakien loturak erlijiosotzat har ditzakegu, erlijioak betebeharrak konplitu baitituzte.

Ordezko-erlijioaren adibide nabari bat G. Arestiren "Aitaren etxea" olerkian topa dezakegu: "Aitaren etxea"k proiektu absolutu bat planteatzen digu: gizarte-kolektibo baten askatasuna, gizaki bakoitzarengandik aurretik datorren eta haratago luzatzen zaiguna, zeinaren alde gizakiok giza errekurtso guztiak: aziendak, armak, eskuak, besoak, bularra…, bizitza bera ere eman behar/nahi baitigu. Absolutu hori adierazteko olerkariak kristau erlijiotik hartzen du poema hezurmamitzen duen metafora: "Aitaren etxea", alegia, zeinek Biblian Jainkoaren enbor eta proiektu orokorra edo erreinua adierazten baitugu[10]: "*Zure etxearen maiteminak erreko nau*" (Sal 69, 9; Jn. 2, 16), "*Ez egin nire Aitaren etxea merkatu-etxe*" (Jn 2, 16).… Aitaren etxearen defentsan gizakiok 'arima' ere eskaini behar/nahi dugu. 'Arima' hitza filosofia/erlijiotik ateratako metafora bat da, gizakien substratu *espirituala* adierazten diguna. Harrigarria, benetan zeren eta *Herri eta Harri*-ren olerkariak materialista zela aitortu baitzuen, behin eta askotan. Bestalde, "Aitaren etxea"ren protagonistak erlijio-pertsonaiaren izaera bereganatzen du, profeta batena, alegia, Jainko edo Absolutuarekin erlazionatu/bizi ohi dena, bai Jainko(ar)en kontra aritzeko: Prometeo, kasu, bai gizakien aldeko bitartekaria izateko: Nazareteko Jesus, konparazione… "Nire Aitaren etxea" olerkia ordainezko erlijioaren adibide argia ez bada, Jainkoa etorri eta ikus dezala.

Gabriel Arestiren poesietan, argi geratzen zaigu "Aitaren etxea" ez dela idazlearen erlijiotasunaren lekuko bakarra, baldin eta *Maldan Behera* eta *Harri eta Herr*i zikloko hiru liburuak aztertzen baditugu. Liburu horiek G. Arestiren literatura-ekoizpenaren laginik adierazkorrenak eta guztiak eraikiak daude erlijiosoak diren txantiloi banaren gainean.[11]

- *Maldan behera*n olerkariak zibilizazio baten (Europaren? Euskal Herriaren?) dekadentziaz dihardu: *Untergang* (poemaren lehen poesia), inplizituki urrezko Aro baten mitoa adierazten diguna: Oinarrizko zibilizazio perfektua, Paradisua edo Absolutua, erlijio-mendietan biltzen zaiguna: grekoen Olinpoa, Hebrearen (Abrahanen) Moriaha, Moisesen Sinaia, Jesusen Tabora, Kalbarioa edo Olibondo-mendia… Historiatik at, beraz, utopia edo transzendentziaren espazioan.

Olerkariak Absolutu edo Utopia hori berreskuratzeko ahalegina planteatzen digu. Horretarako Gizonak (beti maiuskulaz, transzendentziaren marka?) bere burua gizaki indibidualaz haratago eraman behar du. Planteamendu hori transzendentea

da, erlijiosoa, beraz. Dudarik bagenu, poemaren ikuspuntua seinalatzen diguten poemaren argudioak irakur genitzake: lehena, Nietzscheren Zaratustraren profetarena da: "*Ez dut limosnarik ematen. Ez naiz horretarako bezain behartsua*". Bigarrena: Nazareteko Jesusena: "*Ni naiz mahatsondoa eta zuek aihenak*" (Jn, 15, 5). Hirugarren T. S: Eliotena: "*Guretzat ez dago arriskurik ezta ziurtasunik ere katedralean*"[12], zeinean azpimarratzen baitzaigu mundua –giza bizitzaren espazioa– eliza nagusi bat dela, non Jainko(ar)ek diseinaturiko historia gertatzen zaigun.

Poemaren erlijio-dimentsioa argi(ago) geratzen zaigu *Maldan behera*ko protagonisten rolez ohartzen bagara. Lehen zatiko protagonista Gizona da, Supergizakia, Jainkoaren profeta den Zaratustraren birpersonifikazioa zaiguna (pertsiar erlijiotik Nietzschek ekarria): "*Gaingizona irakasten dizuet*". Profeta protagonista menditik (Paradisu zein zerutik) mundura jaisten[13], eta, poema bukaerakoan, berriz mendira (jainkoen egoitzara) itzultzen da.

Poemaren bigarren zatian Joane eta Miren dira protagonistak. Joane Nazareteko Jesusen birpertsonifikazioa da, Jesus bezala, gurutziltzatu, lurperatu, berpiztu eta mendira itzulia. Miren, bestalde, Magdalako Mariaren pertsonifikazio da. G. Arestik behin eta berriz esan zigun Joane Joan bataiatzailearen irudia zela. Mesiasen profeta iragarlea. Azpimarragarriena, haatik, zera da: Gizona Joane olerkaria bera (Gabriel Aresti) da: "*Orain hemen nago, eremu latz honetan*" (II-Hariztia)[14].

- *Harri* eta *Herri* zikloko hiru olerki-liburuek, hots: *Harri eta Herri* (1964), *Euskal Harria* (1967), *Harrizko Herri Hau* (1971) Gabriel Arestiren literatura-ekoizpena bigarren zutabea osatzen dute. Hiru liburuon olerkariaren helburua, *Maldan behera*rena bera da: Gizaki guztientzat askatasuna, Absolutu edo utopia bat eskuratzea, alegia. Aldatzen dena da estrategia. *Maldan behera*ren estrategia gizakia Supergizaki bihurtzean oinarritzen da. *Harri* eta *Herri* zikloko liburuetan, haatik, olerkariak langileen iraultza proposatzen (bultzatzen) du, Lurreko Paradisua berreskuratzeko ahaleginean. Gizarte-ekintza utopiko hori soziologia-ikertzaileek transzendentetzat edota erlijiotzat jo ohi dute, behin eta askotan[15].

Helburu eskatologiko hori eskuratzeko lider egokiak beharrezkoak zaizkigu. Hori dela eta, *Harri* eta *Herri* zikloko olerkariak bere burua profeten ezaugarriekin janzten du[16], baina, *Maldan behera*ko protagonistez bestera, *Harri* eta *Herri* zikloko protagonista ez da eliteko lider bat, jakituriaz eta estoikoen etikaz jantzia, baizik eta langile bat, *gizon apur* bat, "*euskaraz zein erdaraz birao egiten duena*", gizakien aldeko ahaleginean, heriotzaraino konprometitua baina.

*Maldan behera*ko ➔*Harri eta Herri*ko protagonisten aldaketarako, olerkariak, lehenik, K. Marx Nazareteko Jesusekin berdintzen du: "*Eta zu, Treveris / bedeinkatua izanen zara / munduko / hiri guztien / artean, / zure sabeletika jaioko / baitda…/*", eta, jarraian, idazleak bere burua Marxekin (Leninekin) eta Jesusekin parekatzen du: "*Bart /sobera ardo edan nuen / Barrenkalle Barrenako / tafernarik taferna, / eta etsera ezkero / afaldu gabe / joan nintzen / ohera. / Amets bat ukan nuen, / Joaniko Kojoarenean / legatz koxkera bat / jaten nuela / bi lagunekin / adiskidantza onean. / estimazio haundian. / Bi lagun hoek / ziren / Kristo / eta / Lenin./* … eta protagonisten borobila itxita dago: Protagonista (G. Aresti), Nazareteko Jesusen hitz eta ekitez aurkezten zaigu. "*Hemen. Jesus*"[17].

Protagonisten arteko izen aldaketa hutsa ez dela frogatzeko aski zaigu ohartzea Nazareteko Jesusi buruzko zenbat erreferentzia agertzen zaigun *Herri* eta *Harri* ia olerki guztietan[18]: *Ex abundantzia cordis os loquitur. Harri eta Herri*-ko I. zatian: F): Act-

1-18 (Apostoluen Eginak), J): Entzun nahi didanari (Mateo, 13, 9)… II, zatian: Aitaren etxea (Jn 2, 16); D): Jainkoak ailiotsa…, G) olerkian: "Andrea dut, / Jainkoak eman eta / Jondone Petrik / bedeinkatu zidana"… Hirugarren parteko C): olerkiko 'katiximа'; F): olerkiko 'Ageda gure martiri'; N): olerkian "Zeruko Jaunak / Josafateko zelaian / juzgatuko gaitu"; O): "Kanako eztaian / banengo / bezala / esanen diot / nire amari / nire ordua eztela oraindik / allegatu"; Q): Profeta bati (Jurgi Oteizari azaldu nahirik) olerki luzean: "inor ez da profeta bere mendean" (Lk 4, 24), eta, bukatu beharrean, hor hemengo: fariseoak", "oraindik eznaizen fariseoekin akort / geratzen", "haragizko eta odolezko komunioa", "garizuma", "euskaldun kristauen aurpegia", "gure elizetako dorreek", "Kaifas", "Aitaren belarriak", "Jainkoak libra gaitzala"… "Deabruak gaitzala libra agure eroetatik", "Jesukristok", "profeta bat… Antigoalean / profetak harrika hiltzen zituzten" (Jn 10, 30-36); "Nazareteko Jesus / etzen nabegatu / bederatzi hilabete haietan / kontentago"…, eta abar…

*Bukaera*. Gabriel Aresti fedegabeko idazle erlijioso bat da, mamiz: helburu askatzaile utopikoa zein eraz: metaforak, adibideak, narrazio-sekuentzia, pertsonaiak… *Maldan behera* eta *Herri* eta *Harri* zikliko poemetan, olerkaria *profeta* baten itxurapean agertzen zaigu (profeta: transzendentziaz berba egiten duen jainkoen ordezko mezularia). *Maldan behera* eta *Herri* eta *Harri*-ren idazleak, sinesten ez duen Jainkoaren ordez, Gizona aukeratzen du historiaren abiapuntu, erdigune eta helburutzat: gizaki-kolektiboa, Euskal Herria batik bat, eta banakakoa: Anton, Gilen, Gabriel…[19]. Gizon (beti maiuskulaz) horri idazleak 'kultua' ematen dio, *Maldan behera*ko lehen zatian, Nietzscheren Zaratustraren arau eta ekintzen bidez; *Maldan behera*ko bigarren zatian eta *Herri* eta *Harri* zikloko poema-liburuetan, Nazareteko Jesusen aholku eta irakatsien bidez: "*Maitatzen dut Jesukristo / bihotzetikan*"[20]. Edozelan ere, Gabriel Arestik, gizakien aldeko fedegabeko erlijio-konpromisoa oso era intentsu eta bereziz bizi izan zuen. Kukua beti kuku: kultura, politika, erlijioan...

**OHARRAK**

[1] MITXELENA, K., "Miscelanea filológica vasca II", *Fontes Linguae Vasconum*, 1978, 389-413. or.

[2] *Harri eta Herri,* "C) Astepeko sekretarioaren bertso libreak". Bernardo Atxagaren ustez GAren 'galbahea' kristaua izan zen: "Creo que su tratamiento del tema femenino es un tratamiento pasado por el cedazo cristiano: un tratamiento mariano de la mujer" in ZELAIETA, A., *Gabriel Aresti biografia*, Susa, 2000, 36. or.) eta firmarik gabeko idazle batek (Karlos Santamariak?), honelako galdera egin zion GAri in *Zeruko Argia*, 1964, abenduan, 8. "*Zergatik dezu beti jainkotasuna zure kezketan?*".

[3] *Diccionario de Teología Fundamental*, Paulinas, 1992, 1128-9. or.: "Según la bien conocida etimología que da Cicerón del término, la palabra latina *religio* se deriva de re-ligere, que significa estar atento, considerar y observar, mantenerse unidos… El apologista tardío Lactancio (ca. 260-340 d.C.) creía que la palabra derivaba de *re-ligare* que significa 'atar, mantener junto'; una relación estrecha y duradera con lo divino".

[4] QUINZÁ LLEO, *Critica*, n. 977, 2012, 38-41. or.: "La relación del ser humano con la experiencia religiosa siempre ha sido un equilibrio inestable, conoce 'el temor y el ardor' frente a lo numinoso de Dios, como reconoce San Agustín, y que se convertirá en el *tremendum et fascinans* en la terminología de Rudolf Otto y en la inquietud de la búsqueda infinita que habita en el corazón humano".

[5] RUMI, "Maitasuna da misterioen astrolabioa", in COLINAS, A., *Canciones para una música silente,* Siruela, 2014, 13. or.

[6] Ikus *La ética protestante y el espíritu del capitalismo* (1903) eta *Estudios sobre la sociología de la religión* (1921)

[7] Gogoratu Arrazoi- zein Askatasun-'Jainkosei' Ilustrazioak eraikitako aldareak edota Frantziako Iraultzatik sortutako gobernuek egutegiak, zeinetan kristau santu/santak *ordeztuak* izan baitziren iraultzak proposaturiko objektu/subjektuekin. WIKIPEDIA: "El 20 de brumario (10 de noviembre) de 1793, la Convención, a sugerencia de Chaumette, proclamó a la Diosa de la Razón. Identificada con la iconografía grecorromana de *Sophia* ("sabiduría"), se eligió para personificarla a una mujer de nombre "Sofía": Sophie Momoro, esposa del impresor Antoine-François Momoro. Para rendirle culto se le consagró el hasta entonces altar mayor de la catedral de Notre Dame (Paris)".

[8] Adibide gisa: San Paulorena: Fil, 3, 9: "Sabela dute jainko, bere lotsarietan harrotzen dira eta lurreko gauzetan bakarrik pentsatzen dute". Walter Benjamin, *Obras Completas*, Volumen VI: "El capitalismo como religión" (1921). "En el cambio de mileno, el mercado se ha convertido en Dios" (Mark C. Taylor)

[9] SAEZ DE LA FUENTE, I., *El Movimiento de Liberación Nacional Vasco, una religión de sustitución*, IDTP-Desclée de Brouwer, Bilbao, 2002,49-50. or.: "Desde tradiciones y escenarios histórico-sociales diversos, diferentes autores plantean la existencia de sustitutos o equivalentes funcionales de las confesiones religiosas que revisten su papel de cierto *ethos* sacral con sus respectivos componentes doctrinales, simbólicos, rituales, comunitarios. Son los casos de Rousseau en la Francia revolucionaria, de Tocqueville, con sendas obras de análisis sobre al democracia en América y los acontecimientos de 1789, de Durkheim, que en la transición entre la era decimonómica y el siglo XX demanda una alternativa ética impregnada de matriz sacral, de Bellah, que realiza un estudio en profundidad sobre el modelo religioso subyacente al nacionalismo americano y de Luckmann, que en las últimas décadas del siglo XX plantea un concepto clave, el de las transcendencias intermedias, pero sin que éste se vea contrastado en investigaciones empíricas concretas".

[10]Has 12,1: "Jaunak esan zion Abrami: "Utzi zeure lurra, zeure ahaideak eta zeure aitaren etxea"; 24, 38: "Nire aitaren etxera, nire ahaideengana joango zara…".:

[11] *Maldan behera* eta *Herri* eta *Harri* zikloko hiru liburuez gain, GAren hiru antzerki-lanen izenburuak: *Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua* (1963) … *Eta gure heriotzako orduan* (1964)[12] eta *Beste mundukoak eta zoro bat* (1969): "*Or dago, lau ekintzetan: bost anai arreba, hiru deabru, santu bat, gixagaixo hau eta bestea*"[13]. Arestik idatzi zuen eleberri bakarra ere: *Mundu-munduan*[14] Bibliako aipu eta metafora zein erreferentziez beteta dago baita eta *Jainkoa jayo da Otxarkoagan* ipuina eta abar.

[15] *Honela mintzatu zen Zaratustra*, Zaratustraren aurremintzaldiak, II. *Jn, 15, 5. Murder in the Catedral, I zatia* .

[16] NIETZSCHE, F., o. c., I: "Zaratustrak hogeita hamar urte betetzean (adin honetan hasten da Nazareteko Jesus predikatzen. Ikus *Lk, 3, 23*. Itzultzailearen oharra: Zaratustra Jesusen kontrairudi bat da, obra osoan zehar nabari denez). Utzi sorterriko lakua eta mendira joan zen. Hemen bere izpirituaz eta bera bakardadeaz gozatu zuen eta hamar urtetan ez zen nekatu. Azkenean, ordea, aldatu zen bere bihotza -eta goiz batez jaiki zen oskorriarekin, eman zion aurpegia eguzkiari eta honela mintzatu ziztaion:… Opariak egin eta banaketan aritu nahi nikek, harik eta gizonen arteko jakintsuak berriro bere eromenaz eta behartsuak berriro bere aberastasunaz pozik egon arte… Horretarako hosinera jaitsi behar diat: hik arratsean egiten duanez… eta Azpimunduari argia eramaten dioanean…".

[17]SARASOLA, I., *Gabriel Aresti – Poemak*, Kriselu, 1976, "Hitzaurrea", 68. or.: "Ibilbidearen hasera suposatzen duen Hariztiak… Aresti poeta, poemaren egilea, adierazten du".

[18] RUSSELL, B., *Teoria y Práctica del Bolchevismo* (1921): El bolchevismo compagina las características de la revolución francesa, con las del desarrollo del Islam… Entre las religiones, el bolchevismo ha de compararse con el Islam antes que con el cristianismo o budismo". KEYNES, JM., *Un vistazo a Rusia*, 1925: "Como toda religión nueva, no saca su fuerza el lenimismo de la multitud, sino de una pequeña minoría de convertidos entusiastas". GOLDMAN, L., *Le Dieu Caché*, 1955: "La creencia marxista es una creencia en el futuro histórico que el ser humano crea por sí mismo… la transcendencia de la que es objeto esta creencia no es supernatural ni trans-histórica sino supra-individual, nada más pero tampoco nada menos".

[19] VALENTE, JA., *Notas de un simulador*, La Palma, Madrid, 27-28. or.: "El poeta, al igual que el profeta, es el que sabe pronunciar las *palabras-fuerza*. Palabras sustanciales, diríamos nosotros con Juan de la Cruz, o sobrenaturalaza última de las palabras. Único territorio de lo poético".

[20]*HH,* A): "Don Peilheni hitz apurtuak".

[21] SARASOLA, I., "Hitzaurrea", o. c., 64. or.: "Halaber, hamargarrenean adierazten diren gertakariek Jesukristoren nekaldiaren erreferentziaz hezurmamituta eratzen dira".

[22] *Harri eta Herri,* "D): Zorrotzako portuan aldarrika", "L): Nire izana".

[23] ARESTI, G., B) Astepeko sekretarioaren bertso zaharrak" eta J. Azurmendiri gutuna, 61.04.23: "Bart zazpiretan (arratsaldeko zazpiretan, alegia) sartu nintzen ohean, eta utzi gabe irakurri nuen Niko Kazantzakisen Kristo Berriz Gurutzean Josia. Kristau guztiek dadukate obligazioa liburu hori irakurteko. Hea Kristo maitatzen ikasten duten: Nik maitatzen dudan bezala. Kristo, pobreen eta jende xehearen aiskide hori".